

# DemocracyNext

Herritarren Batzarrak diseinatu eta  
implementatzeko gida



# Hitzaurrea

“Assembling an Assembly Guide” (Herritarren Batzarrak diseinatu eta antolatzeko gida) herritarren batzar bat egiteko interesa duen entitate, erakunde, toki administrazio edo erantzule politiko ororen eskura dagoen baliabidea da. Beren ekarpenak sendotzeko, herritarren batzar bat zer den eta nola funtzionatzen duen jakin nahi duten herritar eta gizarte eragileentzat ere tresna baliagarria da.

3 fasetan banatutako gida honek Herritarren Batzar bat diseinatzeko, inplementatzeko eta emaitzen arabera jarduteko eman beharreko urrats guztiak azaltzen ditu. Arretaz aukeratu diren baliabide erabilgarrietan oinarritzen da. Besteak beste, gaia aukeratu eta definitzea, aurrekontua ezartzea, egutegia prestatzea edo parte hartuko duten pertsonak hautatzea, gida honek prozesu osoa argitu eta erraztu egingo du.

Testua Democracy Next erakundeak sortu du eta ELGAREN jardunbide egokiak barne hartzen ditu. ELGAREN Demokrazia Deliberatiborako Tresna Multzoa (OECD Deliberative Democracy Toolbox) garatu zuten pertsonak sortutako ikerketa eta ekintzarako institutua da Democracy Next, irabazi-asmorik gabekoa eta independientea. Gida hau etengabe eguneratu eta aberastuko da baliabide berriekin.



Gida hau Arantzazulab-ek itzuli du, gobernantzaren eta demokraziaren berrikuntzarako laborategia. Arantzazulab-ek garai berri bat aktibatzeke misioa du, erakundeen eta herritarren arteko harremanetan sakonduz. Euskal demokraziaren berrikuntzaren epizentroa da, eta askotariko eragileek bat egiten dute bertan.

Gida osoa irakurri dezakezu jarraian, edo zuzenean atal hauetara salto egin:

Demokraziaren krisiaren inguruan etenik gabe aritu garen bitartean, gauza nabarmen eta itxaropentsu bat gertatu da gure aurrean: demokrazia mota berri bat errotzen hasi dela. Azken hamarkadetan, gobernuak Herritarren Batzarren onura bereganatzen aritu dira. Boterearekiko lotura eta legezko oinarria duten Herritarren Batzar horiek probatu, kasu askotan ezarri eta erabaki publikoak hartzeko prozesuetan ere txertatu izan dira, hartara eredu demokratiko berri bat osatuta.

**Herritarren Batzar** bat ausaz hautatutako pertsonen talde bat da zein komunitate baten adierazgarri den. Ordu kopuru esanguratsua ematen dute ikasten eta lankidetzan, deliberazio gidatu baten bitartez, oinarri komunak aurkitzeko, eta ordezkari politikoei, erabakiak hartzen dituztenei, eta komunitateari gomendio kolektiboak egiteko. Batzuetan, batzar hauek herritarren epaimahai, panel edo kontseilu izena hartzen dute, tamainaren eta herrialdearen arabera.

### I. Aurretik

Gobernantza definitu, ebaluazioa prestatu, zozketa egin

ZOKKETA ZIBIKOA ETA DEMOKRATIKOA - 1. FASEA

Biztanleriaren ausazko lagin bati (2000-30.000) gonbidapena bidaltzea postaz, telefonoz, posta elektronikoz...

Hartzaileek modu boluntarioan erabaki dezakete zozketan parte hartzea

ZOKKETA ZIBIKOA ETA DEMOKRATIKOA - 2. FASEA

Gaiari buruzko ikasketa prozesua: informazioa eta aurkezpenak prestatu

Boluntarioen artean zozketa egiten da, alde aurretik boluntarioak sailkatuta: generoaren, adinaren, bizilekuaren eta irizpide sozioekonomikoen arabera

Hautatutako taldea kasuan kasuko komunitatearen (hiria, estatua, herrialdea, etab.) lagin adierazgarria izango da

### II. Bitartean

01 Ongietorria eta aurkezpena

02 Ikastea

03 Deliberazioa

04 Gomendioak prestatu eta aurkeztea


### III. Ondoren

Jarraipena: gomendioen erantzuna eta implementazioa ordezkari politikoen aldetik, komunikazioa, ebaluazioa, monitorizazioa

Etengabeko prozesu bihurtzea

Atenaseko jardunbide zaharretatik datoz eta testuinguru modernoetan ere funtzionatzen dutela frogatu dute; herritarren batzarrak 600 aldiz baino gehiagotan erabili izan dira tokiko, eskualdeko, estatuko eta nazioarteko eskalan.


# “Deliberazioaren olatua” 1980ko hamarkadan jaio zen, baina 2010ean hasi zen benetan indarra hartzen



Oharra: n = 733; hainbat urte irauten dituzten prozesuak amaitzen diren urtearen arabera adierazten dira (abian dauden prozesu iraunkorrak izan ezik). Iturria: Demokrazia deliberatiboari buruzko ELGaren datu-basea (2023).

Herritarren Batzarrek arrakasta harrigarria izan dute auzi politiko konplexuak eta balioetan oinarritutako dilemak ebazteko; adibidez, sexu bereko ezkontzen eta abortuaren inguruko aldaketa konstituzionaletatik hasi eta hirigintza, energia garbi eta klima aldaketara iritsi arte.

## Herritarren Batzarrak askotariko auzi politikoak ebazteko erabili izan dira



Oharra: n = 733; hainbat urte irauten dituzten prozesuak amaitzen diren urtearen arabera adierazten dira (abian dauden prozesu iraunkorrak izan ezik). Iturria: Demokrazia deliberatiboari buruzko ELGAREN datu-basea (2023).



OECD Deliberative Democracy Toolbox

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

# Zergatik antolatu Herritarren Batzar bat?

Gobernantza sistemek ez dute lortu gizartearen premiazko zenbait arazori soluzioak aurkitzea, eta herritarren eta gobernuen arteko konfiantza zalantzan dago, horregatik, Herritarren Batzarrek berritze demokratikorako potentzial handia dute. Pertsona guztientzako espazio demokratikoak sortzen dituzte, bertan auzi politiko konplexuak konpontzen saiatzeko, elkarri entzuteko eta oinarri komunak aurkitzeko. Aldi berean, polarizazioa gainditzeko eta gizartearen kohesioa sendotzeko baldintza egokiak sortzen dituzte. Gizartearen adimen kolektiboa azaleratzen dute, pertsona anitz ugarik talde homogeen bakoitzeko erabaki hobeak hartzen dituztelaren printzipioa.

ELGA-ren ikerketek ondorioztatu dutenez, behar bezala diseinatu diren Herritarren Batzarrek ordezkari politikoei laguntzen dizkiete erabaki zailak hartzen eta konfiantza areagotzen, arrazoi hauek direla eta:

01

Emaizta politiko hobeak sortzen dituzte, deliberazioen ondorioz hausnartutako judizio publikoak lortzen direlako, iritzi publikoak izan beharrean.

02

Ordezkarri politikoei epe luzerako irtenbideak behar dituzten arazo konplexuagoak jorratzeko aukera dute, hauteskunde zikloetatik haratago doazenak.

03

Erabaki zailak hartzeko legitimazio handiagoa ematen dute. Batzarrak lagungarriak dira ordezkari politikoenentzat, herritarren lehenetsunak eta horien atzean dauden balio eta arrazoiak hobeto ulertzeko, eta adostasuna non lortu daitekeen eta non ez jakiteko.

04

Herritarren konfiantza lortzen da gobernuarengan eta erakunde publikoengan, herritarrei eginkizun garrantzitsua ematen baitzaie erabaki publikoak hartzeko prozesuan. Herritar arruntek eragindako erabaki batean konfiantza handiagoa izaten du jendeak, gobernuak bakarrik hartutako erabakietan baino.

05

Polarizazioa eta desinformazioa saihesten laguntzen dute. Desadostasuna eta polarizazioa areagotzen dituzten ahotsak ez dute tokirik deliberazio prozesuetan.

06

Integritatea indartzen dute eta ustelkeria ekiditen dute, dirua eta boterea dituztenek erabaki publikoen gaineko gehiegizko eraginik ez dutela ziurtatzen baita.

07

Gobernantza inklusiboago bihurtzen dute, herritarren talde askoz ere anitzago bati zabalitzen baitzaio atea. Herritarren Batzarrek, zozketa zibikoari esker, alegia, ausaz aukeratuak direnez, normalean politika publikoetan eta erabaki prozesuetan parte hartzen ez dituzten pertsonak inplikatzeko dituzte.

08

Errespetu zibikoaren eta herritarren ahalduntzearen seinale dira. Herritarrek deliberazioetan parte hartzeak herritarren eraginkortasun politikoa areagotzen du (afera politikoak ulertzeko eta horietan eragiteko gai zarelako ustea).

Ezin dugu denbora galdu. Azken V-Dem txostenaren arabera, azken 35 urteetan, mundu osoko demokrazia 1986. urteko mailara itzuli da. 2022an, munduko biztanleriaren %72a herrialde autokratikoetan bizi zen. 2023ko Eldeman Trust Barometroak ondorioztatu du gobernuak zela konfiantza gutxien sortzen zuen erakundea (% 50), enpresen (% 62) eta GKEen (% 59) aldean.

Herritarren artean, ausaz hautatutako Herritarren Batzarrekiko sostengua handia da eta gorantz doa. Frantzia, Erresuma Batua, Estatu Batuetan eta Alemanian egindako 2020 Pew Global Attitudes inkestaren arabera, batez beste, lau herrialdeetako inkestak % 77k garrantzitsutzat jotzen dute gobernuak Herritarren Batzarrak sustatzea, herritarrei arazoak eztabaidatzeko eta estatuko legeen inguruko gomendioak egiteko aukera ematen baitzaizkie. Frantzia, Alemania, Erresuma Batua eta Italia barne hartzen dituen 2021 Sciences Po Political Trust barometroak ondorioztatutakoaren arabera, herritarren gehiengoak (% 55-71 artean) uste du gobernuak herritarren batzarrek emandako gomendioak aplikatzeko betebeharra izan beharko luketela.


# Zergatik funtzionatzen dute Herritarren Batzarrek?

Herritarren Batzarrak hiru printzipio nagusitan oinarritzen dira.



## 01. Partaidetza

Parte hartzeko eskubidea eta erantzukizuna izateak esan nahi du mundu guztiak daukela pisuzko gaietan erabakitzeke aukera eta betebeharra. Partaidetzak borondatea eta duintasuna ematen die herritarrei, aitortu egiten baita mundu guztiak duela komunitatean inpaktua duten erabakietan eragiteko gaitasuna eta eskubidea.



## 02. Ausazko ordezkaritza (zozketa zibikoa)

Ausazko ordezkariari (zozketa zibikoa) esker, berdintasuna lortzen da botere politikoan. Herritarren talde anitz, inklusibo eta adierazgarria sortzeko modu zuzena eta bidezkoa da. Deliberazio sakon eta esanguratsu bat antolatzeko, parte hartuko duten pertsonen taldea nahiko txikia izan behar da: 35 eta 150 kide

artekoa, normalean. Herritarrak ausaz aukeratuko dira, adinaren, generoaren, bizilekuaren eta testuinguru sozioekonomikoaren moduko irizpideen arabera demografiko anitza bermatuz. Honela, gizarteko kide desberdinen ikuspegien, ikuspuntuen eta bizitako esperientzien dibertsitatea islatzea eta komunitate horren adierazgarritasuna bermatzea lortzen da. Era berean, errotazioa ere ziurtatu behar da, hau da, ordezkatzeko eta ordezkatuak izateko txandaka aritzea. Izan ere, ezin dugu denok erabaki guztietan parte hartu aldi berean.



### 03. Deliberazioa

Deliberazioak elkarrizketa eta eztabaida behar ditu, baina baita ikerketa, entzute aktiboa eta askotariko argudio eta iritziak modu begirunetsuan kontuan hartzea ere. Informazioa zehatza eta esanguratsua izan behar da eta denbora egokia ere, deliberazioak gaiaren muinera iristeko aukera izan dezan. Herritarrek konplexutasuna argitzeko, adimen kolektiboa baliatzeko eta alderdi komunak aurkitzeko baldintza egokiak sortu behar dira. Era berean, legitimazioa ematen zaie sistema demokratikoaren erabaki publikoei.

## Herritarren Batzarren adibideak

### ✓ Bizitzaren Amaierari buruzko Herritarren Batzarra Frantzian (2023)

2022ko abendutik 2023ko irailera bitartean, ausaz (zozketa zibikoaren bidez) aukeratutako Frantzia osoko 185 pertsona deliberatzeko bildu



ziren, Frantziako bizitzaren amaierako gai buruzko legeria aldatzeko beharra eta, baiezko kasuan, aldatzeko modua aztertzeko. Lau hilabete horietan 27 egun eztabaidatu ondoren, %92ko adostasuna lortu zuten 67 gomendioaren inguruan.



Photo credit: Le CESE

Emmanuel Macron presidenteak, 2023ko apirilean, Jauregi Presidentzialera gonbidatu zituen batzarkideak, beren gomendioak jasotzeko. Herritar hauek ondorioztatu zuten Frantziako legeria aldatu beharra zegoela, suizidio lagundua eta eutanasia ahalbidetzeko. Gomendioetan hainbat xehetasun jaso ziren, hala nola zein baldintza eman behar ziren hori posible egiteko, sarbide inklusiboa, beharrezko aurrekontu baliabideak, zainketa aringarrietarako inbertsioa, osasun arloko langileen baldintzak hobetzea, gai hauei buruzko ikerketa areagotzea eta informazio publikoa hobetzea.

Macron presidenteak esan zuen batzarkideek Herritarren Batzarren berrikuntza demokratikoa “hobetzea eta perfektionatzea” lortu zutela. Beste auzi batzuk jorratzeko batzar gehiago antolatuko zituela agindu zuen eta batzarkideen gomendioak 2023ko uda amaieran indarrean sartuko zen legeria berriaren oinarri izatea nahi zuela esan zuen.

Irakurri gehiago batzarrari buruz

DemNext hausnarketa bizitza amaierari buruzko Frantziako Herritarren

## ✓ Irlandako Herritarren Batzarrak (2021-2023)

Irlandan, ausaz (zozketa zibikoaren bidez) hautatutako pertsonak osatutako Herritarren Batzarrak ohiko jardunbide izan dira herrialde osoan azken hamar urteetan.



Argazkiaren iturria: Dara Mac Dónaill / The Irish Times

Adibide nagusien artean daude sexu bereko ezkontzei eta abortuari buruzko gai konstituzionalen inguruko batzarrak. Herritarren batzarretako 100 kideek erreferendumak egitea gomendatu zioten gobernuari, gai horiei eragiten dieten konstituzioaren aldaketak aurrera eramanean zitzan aldarrikatuz. Era berean, jendeak aldaketaren aldeko botoa ematekotan (2018an gertatu zen moduan), legeria aldatzeko proposamenak ere egin zituzten.

Gainera, Irlandan, Herritarren Batzarrak antolatu dira klima aldaketari eta genero berdintasunari buruz. Uneko gobernuaren programak legegintzaldian lau Herritar Batzar antolatzeko konpromisoa zehazten du. Batzar horietako bi dagoeneko burutu dira (Biodibertsitate Galerari buruzko Herritarren Batzarra eta Dublineko Batzarra), drogen

kontsumoari buruzko hirugarrena abian da, eta azken Herritarren Batzarra aurreikusitako datan antolatuko da.

Batzarrari buruzko informazio gehiago (Ingelesez)

---

## ✓ Bogotako Herritarren Batzar Ibiltaria (2020-)

2020an, Bogotako Udalak, DEMOLAB berrikuntza publikorako laborategiaren bitartez, Herritarren Batzar ibiltari bat jarri zuen abian.

Udalari atxikitako eta elkarri lotutako zenbait Herritarren Batzarrek osatzen duten sistema bat da. Batzar bakoitza zozketa zibikoaren bidez hautatutako biztanleriaren adierazgarria den pertsona talde batek osatzen du. Lehenengo hiru batzarrek Bogotak dituen hirigintza erronkei aurre egiteko modua aztertu zuten, hiria bizitzeko atsegina izan dadin. Lehenengo batzarrak zozketa zibikoaren bidez izendatutako 110 kide izan zituen eta helburu nagusiak identifikatzeaz arduratu zen. Bigarren batzarrak 60 kide izan zituen (horietako 18 lehenengo batzarretik zetozenak, jarraitasuna bermatzeko) eta helburu horiek gomendio politiko zehatzetan islatzeko ardura izan zuten. Hirugarren batzarrak 70 kide izan zituen (horietako 25 aurreko batzarrekoak) eta gomendioak berrikusteko eta are gehiago zehazteko eginkizuna bete zuten.

Batzarrari buruzko informazio gehiago (Gazteleraz)

---

## ✓ Ostbelgien Eredua (2019-)

Ostbelgien Eredua agenda politikoa zehazteko Herritarren Batzarra eta ad hoc sortutako Herritarren Panelak uztartzen ditu. Bertan sortutako gomendioak parlamentuko eztabaidara bideratzen dira.



Argazkiaren iturria: Ostbelgien Parlament

Herritarren Batzarra zozketa zibikoaren bidez hautatutako 24 herritarrek osatzen dute eta 18 hilabeteko agintaldia dauka. Agenda politikoa zehazteko ahalmena dauka, izan ere, *ad hoc* Herritarren Panelak sortu ditzake urtero, lehentasun handieneko gai politikoaren inguruan. Herritarren Panel bakoitzak ausaz hautatzen diren 25-50 kide inguru ditu, eta hiru hilabetetan hiru aldiz biltzen dira gutxienez parlamentuari zuzendutako gomendio partekatuak garatzeko. Herritarren taldeen gomendioek parlamentuko batzorde batetik igaro behar dute, eta tokiko parlamentuak taldearen gomendioak eztabaidatu eta horiei erantzuteko betebeharra dauka.

Eredu honen bitartez orain arte jorratu diren gaien artean daude:

- Osasun arloko langileen lan baldintzak hobetzea.
- Arrazoizko preziodun etxebizitzaren krisia konpontzea.
- Bizitza osoan zehar ikasteko sistema hobetzea.
- Testuinguru migratzailetatik datozenen integrazioa hobetzea komunitatean.
- Komunitateko kideen trebetasun digitalak hobetzea.

Ostbelgien Ereduaren funtzionamendua 2018. urtean parlamentuak aho batez onartu zuen legerian oinarritzen da. Eredu hau antzeko deliberazio batzar integratuak sortzeko inspirazioa izan da, hala nola Parisko

Herritarren Batzarra eta Klima Aldaketari buruzko Bruselako Herritarren Batzarra. Bi batzar hauek ere legezko testuen babesak daukate, iraunkorrak dira eta batzarkideak txandakatzen dira zehaztutako maiztasunarekin.

Ostbelgien Ereduari buruzko informazio gehiago

## ✓ Tolosako Herritarren Batzarra (2022-2023)

2022an Tolosako Udalak eta Arantzazulab-ek Tolosako Herritarren Batzarra abiatu zuten nazioarteko zein tokiko hainbat eragilerekin elkarlanean. Nazioartean bidelagun izan dira ELGA eta Democracy Next erakundeetako lan taldeak, eta Euskadin Aztiker, Deliberativa, Aktiba (EHUko ikerketa taldea) eta Prometea.



Argazkiaren iturria: Arantzazulab

2022ko urrian zozketa zibikoaren bidez, alegia, ausaz edo modu aleatorioan, Tolosako 32 herritar hautatuak izan ziren Herritarren Batzarrean parte hartzeko.

32 batzarkideek 2022ko urritik eta abendura bitartean 40 orduetan deliberatu egin zuten, betiere, udalak abiapuntuan proposatutako galderari erantzuteko: Zer egin dezake Tolosako Udalak lankidetzaren publiko-komunitarioaren bidetik, guztion osasuna eta ongizate emozionala hobetuko duen Tolosa lortzeko?

2022ko abenduaren 17an batzarkideek 14 gomendio aurkeztu zizkioten Tolosako Udalari. 2023ko martxoaren 25ean udal ordezkariak gomendio bakoitzari erantzun zioten eta 2023an gomendioen implementazioan dihardu Tolosako Udalak, eta 2023ko azaroaren 4an lehen itzultze-saioa izan da.

Egitasmoaren web-orria

## ✓ Gipuzkoako Herritarren Batzarra (2022-2023)

Herritarren Batzar hau Gipuzkoako Foru Aldundiak, Telesforo Monzon Herrigintza laborategiak eta Arantzazulab-ek sustatu dute, Deliberativa aholkularitzaren bidelaguntzarekin. ELGA/OCDE erakundeak, zehaztutako praktika onen printzipioak oinarri hartuta, 2022ko azaroan abiatu zen Herritarren Batzarra. Ia urtebeteko diseinu lana eta gero, ausaz edo zozketa zibiko bidez aukeratuak izan ziren Gipuzkoako 32 herritar.



Argazkiaren iturria: Arantzazulab

Aukeratutako 32 batzarkideek 40 orduko deliberazio-prozesuan parte hartu zuten 2022ko azaroa eta 2023ko urtarrila bitartean Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako erronkari erantzun eta proposatutako galderari gomendioak egiteko: Nola bermatu dezakegu Gipuzkoako nekazal-jarduera klima-larrialdiari aurre egiteko?

Urtarrilaren 14ko saioan Gipuzkoako Herritarren Batzarreko batzarkideek Gipuzkoako Batzar nagusietan burututako azken deliberazio saioan 9 gomendio luzatu zizkioten Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Martxoaren 14an Gipuzkoako Foru Aldundiak prestatutako 9 gomendioei erantzuna jaso zuten batzarkideek, foru erakundeak Herritarren Batzarra deitzean hartutako konpromisoa betez.

[Egitasmoaren weborria](#)

---

Adibide gehiago:



Herritarren Batzarren ELGA-ren datu basea

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

## Batzarkideen testigantzak

Herritarren Batzarretan parte hartzen duten pertsonak diotenez, parte hartze horrek beste pertsona batzuen ikuspuntuak eta erabaki publikoak hartzeko prozesua hobe ulertzen laguntzen du, eraginkortasuna hobetu eta herritar aktiboak izateko duten gaitasunean sinesteko aukera emateaz gain. Kasu askotan, bizitza aldatzeko moduko esperientzia izaten da.

Hona hemen Herritarren Batzarretako kideen testigantzak:



Brasilgo herritarren batzarrak (2022-2023)

Ireki kanpoko esteka (Portugesez eta ingelesezko azpтитuluak)



Biodibertsitate Galerari buruzko Irlandako Herritarren Batzarra (2022-2023)

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**Klimari buruzko Frantziako Herritarren Batzarra (2019-2020)**

Ireki kanpoko esteka (bideoa frantsesez dago; sakatu “azpigituluak>itzulpen automatikoa” hizkuntza hautatzeko)



**Tolosako Herritarren Batzarra**

Ireki kanpoko esteka (Bideoa euskaraz, eta gaztelaniako azpigituluekin)




**Gipuzkoako Herritarren Batzarra**

Ireki kanpoko esteka (Bideoa euskaraz)



# 01 Batzarraren aurretik



## 1.1 Arrakastarako baldintzak

Beharrezko zorrotasunarekin garatutako Herritarren Batzar batek konfiantza publikoa indartzen du, legitimazioa duten emaitza fidagarriak sortzen ditu eta erabaki publikoetan inpaktua izatea lortzen du. Honelako prozesu bat antolatzeko, testuingurua eta aurretiazko baldintzak behar bezala ezartzea garrantzitsua da. Gidaren atal honetan azalduko dira baldintza horiek zeintzuk diren. Hurrengo kapituluetan, xehetasun gehigarriak aurki daitezke.

### ELGAREN jardunbide egokien printzipioak

Herritarren Batzarrak antolatzeko jardunbide egokien printzipioak garatzeko, 300 batzar ingururen analisia egin zen, gobernuko, gizarte zibileko eta mundu akademikoko adituen talde aholkulari batekin lankidetzan. Zalantzak sortzen badira, beti erabil daitezke printzipio hauek kalitate handiko Herritarren Batzar bat nolakoa den jakiteko.

Hona hemen printzipioak:

## 1. Xedea

Helburua argi eta garbi zehaztutako zeregina izan behar da, eta ongi definitutako auzi publiko batekin lotura izan behar du. Galdera neutro moduan planteatzen da, hizkera ulerterrazarekin.

## 2. Kontuak ematea

Erabaki publikoetan eragina izatea lortu behar da. Batzarrari mandatua eman dioten ordezkari politikoek publikoki onartu behar dute batzarkideen gomendioei epe egokian erantzun edo horien arabera jarduteko konpromisoa. Onartzen diren gomendio guztien inplementazioari jarraipena txosten publikoen bidez egin behar da.

## 3. Gardentasuna

Deliberazio prozesua publikoki aurkeztu behar da hasi aurretik. Prozesuaren diseinua eta material guztiak –barne hartuta gai zerrendak, aurretiazko informazio txostenak, erabilitako aurkezpenak, gaiari buruz aditu zein arituek partekatutako audio eta bideo grabaketak, batzarkideen txostena, gomendioak (horien amaierako idazketa batzarkideekin kontsultatu beharko delarik) eta zozketa zibikoa burutzeko jarraitutako irizpideak herritarren eskura jarri beharko da, behar bezala. Finantzaketa iturria ere ezagutzera eman behar da. Ordezkari politikoek batzarkideen gomendioei emandako erantzuna eta ondorengo ebaluazio prozesua argitaratu behar dira. Betiere, komunikazio publikorako estrategia zehatza jarraituta.

## 4. Ordezkatzeko gaitasuna

Batzarkideak biztanleriaren mikrokosmosa izan behar dira. Ausaz aukeratutako herritar talde bat oinarri hartuta, tokiko aniztasuna deskribatzen duen taldea sortzen da estratifikazio demografikoaren arabera (taldea komunitatearen profil demografikoarekin bat datorrela ziurtatzeko, errolda edo antzeko datuak erabili beharrean). Zenbaitetan, jarreraren inguruko irizpideak ere erabiltzen dira (testuinguruaren arabera). Mundu guztiak izan beharko luke batzarkide izateko aukera bera. Kasu batzuetan, ausazko lagina sortzean, zenbait ezaugarri demografikoren lagina areagotzea komeni da, adierazgarritasuna lortzeko.

## 5. Inklusioa

Inklusioa bermatzeko, kontuan hartu beharko da ordezkariak txikiegia duten taldeen parte hartzea nola bermatu. Halaber, ordainsari, gastuen ordainketa eta/edo haur eta adinekoen zainketa zerbitzuen bidez ere sustatu beharko da parte hartzea.

## 6. Informazioa

Batzarkideek testigantza eta ezaguera zehatz, esanguratsu eta irisgarri sorta zabala izan behar dute eskura. Aurkezpenak egiten dituzten hizlarietara entzun eta galderak egiteko aukera emango zaie, hizlarien artean egon behar dira batzarkideek beraiek hautatutako adituak, arituak eta ordezkariak.

## 7. Taldearen deliberazioa

Batzarkideak oinarri komunak aurkitzeko gai izan beharko dira, agintari publikoei egiten dizkieten gomendioak sortzeko. Horretarako, entzute arretatsu eta aktiboa egingo dute, ikuspuntu guztiak aztertuta eta batzarkide guztiei hitz egiteko aukera emanda, talde txiki eta plenarioko jarduerak txandakatzen

dituen formatu misto baten bitartez, eta fazilitazio laguntza adituarekin.

## 8. Denbora

Deliberazioak denbora jakin bat behar du, batzarkideek gaiari buruzko informazioa ezagutu eta aztertzeko, eta gomendio arrazoituak garatzeko aukera izan dezaten, auzi politiko gehienak nahiko konplexuak izaten baitira. Herritarren gomendio arrazoitu horietara iristeko, batzarkideak aurrez aurre elkartu beharko dira lau jardunaldi osoz gutxienez, denbora laburrago bat justifikatuta badago salbu. Bileren artean banakako ikasketa eta hausnarketarako denbora uztea gomendatzen da.

## 9. Integritatea

Abiapuntuko mandatua zehaztuko duten ordezkari politikoak ez diren kanpoko koordinazio talde batek kudeatuko du prozesua. Prozesuaren erabakiei buruzko azken hitza kanpoko koordinatzaileena izango da, eta ez ordezkari politikoena. Testuinguruaren arabera, aholkularitza edo Jarraipen Batzorde batek gainbegiratu beharko du prozesua, ziurtatzeko ikuspuntu guztien ordezkariak barne hartzen dituela.

## 10. Pribatutasuna

Batzarkideen pribatutasuna errespetatu behar da, bilatu ez den komunikabideen arreta eta jazarpenetik babestuta daudela ziurtatzeko eta batzarkideen independentzia mantentzeko. Horrela, interes taldeek ez dituzte erosiko eta ez diete lobbie-agingo. Talde txikietako eztabaidak pribatuak izango dira. Batzarkideen identitatea prozesua amaitzean eman daiteke ezagutzera, batzarkideek baimena ematen badute. Batzarkideen datu pertsonal guztiak nazioarteko jardunbide egokien arabera

trataturako dira, besteak beste, Europar Batasuneko Datu Pertsonalak Babesteko Erregelamenduaren (RGPD, gaztelaniaz) arabera.

## 11. Ebaluazioa

Batzarkideen ebaluazio anonimoa egingo dute, prozesua irizpide objektiboen (adib. emandako informazioaren kantitatea eta aniztasuna, ikasteko erabilitako denbora, bideratzaileen independentzia) arabera aztertzeko. Koordinazio taldeak barne ebaluazioa egin beharko du, txosten honetan azaldutako jardunbide egokiak kontuan hartuta, lortu dena aztertu eta etorkizuneko prozesuak hobetze aldera. Zenbait deliberazio prozesutan, ebaluazio independente bat komenigarria izan daiteke, batez ere iraupen luzeko prozesuen kasuan. Deliberazio prozesuaren amaierako emaitzen eta praktikara eraman diren gomendioen inpaktuaren arabera ere ebaluatu behar da.



Deliberazio prozesuetarako ELGAren jardunbide egokien printzipioak erabaki publikoak hartzeko

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez eta gazteleraz)

## Erabaki publikoak hartzeko prozesuarekiko lotura


Herritarren Batzarrak erabaki publikoetan eragina izango duela ziurtatzea da zereginik garrantzitsuena. Abiapuntuko mandatura zehaztu duten ordezkari, erakunde edo elkarteek publikoki onartu beharko dute batzarkideen gomendioei erantzun eta horien arabera epe egokian jarduteko konpromisoa. Hemen prozesuan askotariko eginkizunak izango dituzten interes taldeen sorta batekin elkarrizketak izatea garrantzitsua da. Prozesua arrakastatsua izan dadin, sarritan, Batzarrak alderdi edo erakunde anitzen babesa duela

ziurtatu behar da, eta gizarte zibileko elkarteak eta bestelako erakundeak jakinaren gainean egon behar dira hasieratik.

## Denbora eta baliabideak

Herritarren Batzar bat antolatzeko, behar adinako denbora eta aurrekontua behar dira.

Oro har, **bi hilabete** behar dira gutxienez ordezkari publikoen konpromiso argia lortzeko eta batzarra diseinatzeko. Batzarkideak hautatzeko zozketa zibikoaren prozesuak beste **bi hilabete** inguru beharko ditu.



Azkenik, deliberazioak **lau egun oso** beharko ditu **gutxienez, sarritan, zenbait hilabetetan banatuta**. Deliberazioak denbora behar du batzarkideek informazioa jasotzeko, hori aztertzeko eta gomendio arrazoituak garatzeko, auzi politiko gehienak konplexuak izaten baitira.

Aurrekontuaren bolumena batzarraren testuinguruaren, tamainaren eta iraupenaren arabera izango da, baina 26.000 dolar estatubatuar (23.000 euro) ingurukoa izan daiteke Brasilgo toki mailako batzar txiki baterako, edo zenbait milioi eurokoa Frantziako batzar nazional handi baterako.

Aurrekontuaren zati handi bat batzarkideen denbora ordaintzeko eta fasilatatzaile kualifikatuak kontratatuzko erabiliko da.

## Herritarren Batzarren aurrekontu adibideak

|  |  |                |
|--|--|----------------|
| Bizitzaren Amaierari buruzko Herritarren Batzarra Frantzia (2023)                      | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Esparru nazionala</li> <li>• 185 kide</li> <li>• 27 eguneko deliberazioa</li> <li>• Komunikazio aurrekontu eskuzabala</li> </ul>  | 4.2 milioi EUR |
| Ongizate Emozionalari buruzko Tolosako (Espainia) Herritarren Batzarra (2022)          | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko esparrua</li> <li>• 32 kide</li> <li>• 5 eguneko deliberazioa</li> <li>• Gaitasunen garapena barne</li> <li>• Ez ditu barne hartzen proiektuko langileen kostuak</li> </ul>            | 217.330 EUR    |
| Jolas Parkeei buruzko Petalumako (Kalifornia, AEB) Herritarren Batzarra (2022)         | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko esparrua</li> <li>• 36 kide</li> <li>• 12 eguneko deliberazioa</li> <li>• Interpretazio kostuak barne</li> <li>• Proiektuko langileen kostuak partzialki barne hartzen ditu</li> </ul> | 455.000 USD    |
| Hondakinen Kudeaketari buruzko Francisco Moratoko (Brasil) Herritarren Batzarra (2022) | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Tokiko esparrua</li> <li>• 40 kide</li> <li>• 5 eguneko deliberazioa</li> <li>• Ez du barne hartzen instalazioen alokairua</li> </ul>   | 47.500 USD     |

Baliabideen aldetik, koordinatzaile nagusi bat edo koordinazio talde bat izendatu beharko da (prozesua kudeatzeko). Horrez gain, erakundeko gaitasun desberdineko profilak inplikatu beharko dira, besteak beste: komunikazioak, proiektuen kudeaketa, arlo politiko espezifiko bateko ezaguera aditua, eta plataforma digital edo webguneen moduko baliabide teknikoaren ezarpena.



Herritarren Batzarraren aurrekontu eredua

Deskargatu XLSX fitxategia

## Partaidetzaren oztopoak gainditzea

Erakunde publiko batek batzarkideen gomendioak kontuan hartu eta mundu errealean eragina duten lege eta politiketarako oinarri gisa erabiltzeko konpromisoa hartzea da parte hartzeko motibazio nagusia. Mundu guztiak gonbidapena onartzeko aukera bera duela ziurtatzeko, partaidetzarako zailtasunak ahalik eta gehien murriztu behar dira, honela:

- Ordainsariak eskaintzea
- Gastuak ordaintzea
- Adingabeen eta adinekoen zainketa ordaintzea
- Kokaleku irisgarria aukeratzea
- Batzarkide izateak dakarrenari eta behar den denborari buruzko nahikoa informazio ematea
- Parte hartzeko tokiko zailtasunak beren testuinguru espezifikoan aztertu eta lantzea

|                             |               |
|-----------------------------|---------------|
| Frantzia                    | 87 EUR/eguna  |
| Mexiko                      | 600 MXN/eguna |
| Estatu Batuak               | 160 USD/eguna |
| Euskal Autonomia Erkidegoan | 88 EUR/eguna  |

## Zenbat ordaindu behar zaie batzarkideei?

Zenbatekoa testuinguruaren arabera izango da. Hona hemen duela gutxi antolatutako Herritarren Batzarren zenbait adibide.

## Instituzionalizazioaren onurak eta ezaugarriak

Herritarren Batzarren onurak areagotze aldera, gero eta sarriago, erabakiak hartzeko prozesu demokratikoan txertatu izan dira, modu iraunkorrean. Horrek esan nahi du, borondate politikoaren mendeko ekimen puntualak izan beharrean, erabaki mota jakinak hartzeko prozesuaren ohiko elementu bihurtzen direla. Askotan, legezko oinarri edo oinarri instituzional batek babesten du parlamentuen moduko uneko erakundeekiko duten lotura.

Herritarren deliberazioa sistematizatzeak errazago eta merkeago egiten du zenbait gairen inguruko batzarrak antolatzea, eta horrek legitimitate demokratikoa areagotzen du halabeharrez. Gero eta batzar gehiago antolatu, orduan eta aukera gehiago egongo dira herritarrek beste herritar batzuen



ordezkari bezala jarduteko, hartara herritarrei erabakietan eragiteko ahalmen handiagoa emanda. Irakurri gehiago onurei buruz gida honen 3.3 atalean.

Herritarren Batzar bat antolatzean, aldaketa demokratiko handiago baterako lehen urrats moduan hartzea gomendatzen dugu. Herritarren Batzar bat martxan jartzeko lan handia behar da, eta parte hartzaile guztiek gaiaren inguruko ezaguera sakonak eta gaitasunak garatzen dituzte. Atera onura horri, segi aurrera, eta aldarazi sistema, herritarren deliberazioa erakunde publikoetan txertatzeko.

Gai jakin baten inguruko Herritarren Batzar puntualarekin hasi bazarete ere, aurrerago erabakiak hartzeko prozesuaren elementu iraunkor bihurtzeko asmoa lagungarria izango da ikaskuntza onuragarriak ateratzeko. Herritarren aldian behingo parte hartzea behar duten erronka politiko erregularretan txertatzen diren Herritarren Batzarrek egin dezaketen ekarpenari buruzko elkarrizketari ekiteko balio dezake.

Helburua batzar iraunkorrak txertatzeko aldaketa estrukturala dela gogoan hartzen badugu, errazago identifikatuko ditugu sortu beharreko azpiegitura juridiko, sozial eta instituzionalak. Horren barne egon litezke, esaterako, araudi aldaketak batzarren funtzionamendua errazteko, batzarrei agintaritza handiagoa ematea edo batzarkideen ordainketa erraztea.

Demokrazia Deliberatiboa instituzionalizatzeko Euskal Herrian ondorengo gogoetak eta estrategiak jorratzen hasi gara.

## 1.2 Gobernantza: taldea osatzea

Batzarrak gobernantza egitura argi eta sinplea behar du, gardentasuna eta independentzia bermatzen dituen. Agintaldi luzeagoak dituzten esparru nazionalako batzarrek gobernantza konplexuagoa izaten dute, bermatzaile independente, presidente eta antzeko elementuak barne dituen. Aldiz, batzar txiki eta laburragoek egitura sinpleagoak izaten dituzte. Adibide guztietan, zenbait talde elkartu behar dira lana aurrera atera ahal izateko.

### Mandatu emailea

Mandatu emailea da herritarren batzarra abian hartzen duen entitate, instituzio edo erakunde publikoa; edo beste hitz batzuetan, entitate komanditarioa. Bi gauza bermatu behar ditu: batzarrak eginkizun argia izatea eta emaitzak erakunde publikoaren erabakitze prozesuan txertatzea. Batzarrak funtzionatzeko behar dituen baliabideak hornitzen ditu (ekonomikoak, langileen orduak, komunikazioa).

## Antolatzailea

Herritarren batzarra kudeatzeko, entitate edo erakunde publiko mandatu emailea ez den kanpoko erakunde bat beharko da. Honela, prozesuaren integritatea bermatzea lortuko da. Antolatzaileak, Herritarren Batzarren kudeaketan duen esperientziari esker, batzarraren diseinuan lagunduko du, batzarkideak zozketa bidez izendatuko ditu, batzarraren bilkuren logistikaz arduratuko da, deliberazioa bideratuko du eta batzarraren amaierako txostena idatziko du.

Zentzu horretan, Herritarren Batzar iraunkorrak salbuespena dira. Kasu horietan, mandatu emaileak, herritarren deliberazioa denboran zehar garatzean, gaitasunak eta ezagutza sortzen ditu eta, ondorioz, erakunde publikoa gai da kalitate handiko deliberazio prozesu bat bere kabuz eramateko, eta bere eginkizunen esparru barruan txertatzen du. Horretarako, idazkaritza independente bat eratzen da, eginkizun eksklusibo horrekin.

Herritarren Batzarren kudeaketan espezializatuta dauden irabazi asmorik gabeko eta irabazi asmodun erakunde ugari daude. Kalitate handiko estandarrak ziurtatzen dituen bat aukeratu behar da, gida honetan azaldutako ELGAren jardunbide egokiak errespetatzen dituen.

Hona hemen DemocracyNext-en konfiantzako zenbait bazkide: [newDemocracy](#) eta [MosaicLab](#) Australian, [Delibera](#) Brasilen, [G1000](#) Belgikan, [MASS LBP](#) Kanadan, [iDeemos](#) Kolonbian, [We Do Democracy](#) Danimarkan, eta [Deliberativa](#) Espainian. [Democracy R&D](#) sarearen webgunean Herritarren Batzarretan adituak diren erakundeen zerrenda luzeago bat aurki daiteke.

Gipuzkoako eta Tolosako Herritarren Batzarren diseinu eta inplementazioan ondorengo erakundeek parte hartu dute.

Gipuzkoako Herritarren Batzarra:

- Zozketa zibikoa: [Aztiker](#)

- Erraztea: Aztiker eta Artaziak
- Ebaluazioa: Parte Hartuz (UPV-EHU)
- Aholkularitza aditua: Deliberativa

Tolosako Herritarren Batzarra:

- Zozketa zibikoa: Aztiker
- Erraztea: Aztiker eta Prometea
- Ebaluazioa: Aktiba (UPV-EHU)
- Aholkularitza aditua: Deliberativa

## Proiektu taldea

Proiektu taldea osatzen dute Herritarren Batzarra abian jarri duen mandatu emailearen ordezkariak eta kudeaketaz arduratuko diren antolatzailearen ordezkari nagusiek.

Taldea prozesu osoaz arduratuko da, horren barne daude: batzarra baldintza egokietan garatzen dela, inpaktua bermatuta dagoela eta ELGAren jardunbide egokiak errespetatzen direla bermatzea. Mandatu emailearen eta antolatzailearen arteko zubia dira.


## Talde ikuskatzaile edo aholkulari aditua

Talde ikuskatzaile batek Herritarren Batzarraren independentzia bermatzen du. Ikuskaritza iturri benetan independentea izan dadin, eginkizun hau unibertsiitate baten, erakunde independente baten edo deliberazio demokrazien arloko nazioarteko adituen esku utzi behar da. Talde ikuskatzaileak hemen aipatu diren gainerako taldeen artean agertzen diren desadostasunak gainditzen lagunduko du, eta, gatazka sortzen bada, batzarkideen eta mandatu emailearen arteko bitartekari lanak egingo ditu. Alderdi politikoaren ordezkariak ere egon daitezke talde honen barne.

## Edukien taldea

Edukien taldea da batzarkideen deliberazio prozesurako abiapuntua izango den informazio oinarria biltzeaz arduratuko dena. Informazio hori publikoaren eskura ere jarriko da eta zehatza, zabala, esanguratsua, argia eta irisgarria izan beharko da. Ezaugarri horiek funtsezkoak dira deliberazioa eraginkorra izateko eta prozesu osoaren legitimitatea ziurtatzeko.

Edukien taldea osatzen duten pertsonak adituak eta arituak izango dira batzarraren gai politikoan eta askotariko ikuspuntuen ordezkaritza dagoela ziurtatuko da. Kideak, sarritan, akademikoak, aditu independenteak eta bestelako interes talde esanguratsuak izaten dira. Proiektuaren taldeak ezartzen du edukien taldea, eta talde honen osaera erabat gardenena da.



## Batzarraren gobernantza txantiloia

Deskargatu PDF (EUS)



## KNOCA klimaren inguruko batzarren gobernantza egiturak eta jardunbideak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

# 1.3 Ebaluazioa prestatzea

Herritarren Batzarra ebaluatzea lagungarria da erantzule politikoek, interes taldeek eta publiko orokorrak prozesuan eta batzarrak garatutako gomendioetan konfiantza izan dezaten. Gainera, ongi

funtzionatu zuena eta hurrengorako hobetu behar dena zehazten lagunduko du.

Ebaluazio prozesua hasieratik jarri behar da martxan, diseinuari buruzko erabakiak hartzen hasi aurretik. Herritarren Batzar bat ebaluatzeko hainbat metodo eta planteamendu daude, horien barne direla inkestak, dokumentuen berrikusketa, elkarrizketak eta behaketa. Luzaroago irauten duten esparru nazionalako batzarren kasuan, inpaktuaren ebaluazioa egitea komenigarria izan liteke ere. Informazio gehiago jasotzeko, irakurri “Ordezkaritzako deliberazio prozesuak ebaluatzeko ELGAren gidalerroak”.

Tolosako eta Gipuzkoako Herritarren Batzarrak EHUko Aktiba eta Parte Hartuz ikerketa taldeek ebaluatu zituzten, hurrenez hurren. Euskal testuinguruan, bi ebaluazio-irizpide berri gehitu dira: genero-ikuspegia eta bi hizkuntza ofizialen erabilera (euskara eta gaztelania).



Ordezkaritzako deliberazio prozesuak ebaluatzeko ELGAren gidalerroak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

## Nork egingo du ebaluazioa?

Ezinbestekoa da ebaluazioak ahal bezain independenteak izatea.

# )1

## 01. Ebaluazio independenteak

**Ebaluazio independenteak** dira Herritarren Batzar bat ebaluatzeko modurik osoena eta fidagarriena. Bereziki baliagarriak dira denbora luzez (adib. lau egun edo gehiago) funtzionatzen duten batzarretarako. Oro har, ebaluazio metodoetan eta deliberazio demokrazian esperientzia duten eta kalitate handiko deliberazio publikoak sakonki ezagutzen dituzten akademikoek edo espezialistek egiten dituzte.

Ebaluatzaile bila hasteko leku aproposak dira deliberazio demokratikoaren arloko zentro espezializatuak, hala nola University College Dublin unibertsitateko School of Politics and International Relations, Newcastle Unibersity-ko School of Geography, Politics & Sociology, Pennsylvania State University-ko Department of Political Science eta University of Canberra unibertsitateko Centre for Deliberative Democracy and Global Governance.

Testuinguruaren arabera, baliteke bertako hizkuntza hitz egiten duen tokiko ebaluatzaile bat behar izatea. Kasu horietan, aukera ona izan daiteke tokiko unibertsitateko zientzia politikoen fakultatearekin harremanetan jartzea. Deliberazio demokratikoaren arloko adituak aurkitzea zaila bada ere, zientzia politikoen tokiko ikertzaileek nazioarteko adituei kontsulta egin diezaiekete edo hauen ikuskaritzapean jardun dezakete ebaluazioa egiteko. Baliteke ere antolatzaileak testuingururako egokiak diren akademikoak gomendatu ahal izatea.

# 02

## 02. Proiektuaren taldearen autoebaluazioa

Batzarraren proiektuaren taldearen autoebaluazioa zenbait galderaren bidez gidatutako eztabaida irekia izaten da, prozesua garatzeko ardura duten taldekideen artean. Ikasitakoaren eta hurrengorako hobetu behar denaren inguruko hausnarketa egiten dute.

# 03

## 03. Batzarkideen autoebaluazioa

Batzarkideen autoebaluazioa hauen iritzi konfidentzialak bilduta egiten da, inkesten eta elkarrizketen bitartez.



Antolatzaileei eta fazilitatzaileei elkarrizketa

Deskargatu DOCX (EUS)



Parte hartzaileentzat inkesta Egitasmoaren aurretik betetzekoa

Deskargatu DOCX (EUS)



Parte hartzaileentzat inkesta Egitasmoaren ondoren betetzekoa

Deskargatu DOCX (EUS)

Euskal Herriko testuingurura egokitu dituzte Herritarren Batzarra baino lehen eta ondoren batzarkideei egiteko galdetegia EHUko Parte Hartuz eta Aktiba ikerketa taldeek Gipuzkoako eta Tolosako Herritarren Batzarretan.

# Zer ebaluatuko da?

Ebaluazioak islatu beharko du batzarra nola prestatu zen, nola gauzatu zen eta zein inpaktu izan zuen.

## ✓ Prozesuaren diseinuaren integritatea

Deliberazioaren diseinu prozesua ebaluatzea

- Helburu argi eta egokia
  - Esparru argi eta inpartziala
  - Mandatu argi eta gardena
  - Helburuekin lerrokatuta dagoen batzarraren diseinua
  - Batzarra diseinatzeko prozesu inklusiboa
  - Gardentasuna eta gobernantza
  - Adierazgarritasuna eta inklusioa
- 

## ✓ Deliberazioaren esperientzia

Herritarren Batzarraren garapena ebaluatzea

- Bideratze lanen neutraltasuna eta inklusioa
  - Web-orri zein plataforma digitalen erabilera irisgarria, neutrala eta gardena
  - Informazio eta interes taldeen irekitasuna, aniztasuna, argitasuna eta egokitasuna
  - Batzarkideen judizioaren kalitatea
  - Batzarkideek ezagutza berriak lortu izanaren pertzepzioa
  - Hitz egiteko aukerak izatea eta berdintasuna
  - Errespetua eta elkar ulermena
  - Erabakiak hartzeko eta erantzuteko prozesu askea
  - Batzarkideen pribatutasuna errespetatzea
- 

## ✓ Inpakturako bideak



Herritarren Batzarraren eragin handiko ondorio eta/edo ekintzak ebaluatzea

- Eragin handiko gomendioak
- Erantzuna eta jarraipena
- Batzarkideen zaintza behin Herritarren Batzarra amaituta



**Ebaluazio txosten baten adibidea**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

Hauk dira Euskal Herrian garatutako Herritarren Batzarren ebaluazio txostenak:



**Gipuzkoako Herritarren Batzarra: analisi kuantitatiboa (Gazteleraz)**

Ireki kanpoko esteka



**Gipuzkoako Herritarren Batzarra: analisi kualitatiboa (Euskaraz)**

Ireki kanpoko esteka



**Tolosako Herritarren Batzarra (Euskaraz eta Gazteleraz)**

Ireki kanpoko esteka

## 1.4 Batzarra diseinatzea

### Nola aukeratu gaia eta nola zehaztu mandatua?

Ezarritako gaiaren esparruak eragina izango du Herritarren Batzarraren diseinuaren gainerako alderdi guztietan.

## Batzarraren gaiak bete beharreko baldintzak:

- Mandatu argi bat definituta izatea
- Irtenbidea behar duen benetako arazo batekin lotura izatea. Oreekak bilatzea eskatzen duten eta baiezko/ezezko erantzun errazik ez duten gai konplexuak bereziki aproposak dira Herritarren Batzarretarako. Gainera, balioetan oinarritutako dilemak izaten dituzte horrelako gaiak
- Mundu guztiak ulertzeko modukoa den era argi eta inpartzialean definituta egotea
- Gomendioei emango zaien erabilera eta batzarraren eta sistema politiko edo erabakiak hartzeko ziklo zabalagoaren arteko lotura argi azaltzea
- Mandatu emaile eta proiektu taldearen kideen izen-abizenak publikoki komunikatzea, kontuak emateko eta gardentasuna bermatzeko

## Kontuan hartu beharreko beste alderdi batzuk:

- Arazoa(k) konpontzen laguntzeko, batzarraren eraginari onura atara diezaieketen erabakiak zeintzuk diren pentsatzea
- Interes taldeek gaiaren definizioan parte hartzea lortzea
- Gomendio baliagarriak izateko prozesuaren amaieran, zabalegia den esparru baten eta ideia berri zein baliagarriak sortzeko estuegia den esparru baten arteko oreka aurkitzea



Gaia aukeratu eta idazteko egiaztapen zerrenda

Deskargatu PDF (EUS)



Eskuduntza zehazteko KNOCA gidalerroak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

## Nork erantzungo die gomendioei?

Hasiera-hasieratik erabaki behar da nork erantzungo dien gomendioei. Horrek jabetza sentimendua, argitasuna eta konpromisoa areagotuko ditu. Sarritan, parlamentua, udala, gobernu batzorde bat edo erakunde bateko zuzendaritza taldea izaten da.

## Zeintzuk izango dira batzarraren tamaina eta iraupena?

→ **Gaiaren eta mandatuaren araberakoa da.** Gaia gero eta konplexuagoa, oihartzun askokoa edo polemikoagoa izan, orduan eta handiagoa izan beharko da batzarra eta orduan eta denbora gehiago beharko du gaia jorratzeko.

---

→ **Batzarra behar bezain anitza izango da,** mundu guztiak senti dezan “ni bezalako norbait” hor barruan dagoela.

---

→ **Testuingurua garrantzitsua da.** Oro har, tokiko batzarrak txikiagoak izaten dira (25-40 pertsona inguru) eta nazionalak eta nazioz haraindikoak, berriz, handiagoak (esaterako, Eskoziako batzarrek 100 bat kide izan zituzten, Irlandako eta Frantziako batzar nazionalak, 100-185 kide artean, eta Europar Batasun mailako batzarrek, 200 kide inguru).


---

→ **Efizientziaren, deliberazioaren kalitatearen eta ordezkaritza handienaren arteko berezko oreka bilatzen da.** Kide gehiago izateak iraupen luzeagoa eta baliabide gehiago behar izatea dakar, baina, era berean, kide gehiagorekin, ordezkaritza eta gomendioen legitimitatea areagotzen dira.

---

→ **Gaia gero eta konplexuagoa, orduan eta denbora gehiago behar du.**

ELGAREN jardunbide egokien arabera, 4 jardunaldi oso behar izaten ditu deliberazioak gutxienez (oro har, 40 ordu neurri ona izaten da). Hala ere, gai txiki edo tokiko gai askok 6-10 egun inguruko deliberazioa behar izaten dute. Batzar nazional ugari 15-25 eguneko iraupena izaten dute. Kasuan kasu, erantzun ondorengo galderari eta ordu kopurua erabaki arestian aipatutako irizpideak kontuan hartuta: “Gai honi buruzko batzar baten gomendioak fidagarriak irudituko litzaizkizuke X egunen ondoren?”.



**Noiz egin behar da batzarra?**

- Datak eta orduak ezartzea gai logistikoa dela dirudi, baina ongi aukeratzen ez badira, partaidetzarako oztopoak sortu daitezke eta zenbait talde kanpo gera litezke
- Normalean, batzarren bilkurak asteburuetan egiten dira, hilean behin edo bitan eta zenbait hilabetetan zehar, batez ere parte hartzeko distantzia luzeagoak egin behar dituzten batzarkideak dituzten eskualdeko edo estatu mailako batzarren kasuan

- Tokiko batzarrak astegunetan egin daitezke, batzarkideek ez baitute urrutitik bidaiatu behar
- Bilkuretarako datak aukeratzean, ez hautatu jaiegunak edo ospakizunak (gutxiengo taldeenak barne), eskoletako jaiegunak eta garrantzi kulturala duten bestelako datak



## Herritarren Batzar txiki baterako egutegia

Deskargatu PDF (EUS)

## Non egin behar da batzarra eta nola sortu deliberaziorako espazio bat?

Herritarren Batzarra egiteko toki bat aukeratzea funtsezko urratsa da prozesua behar bezala garatzen dela ziurtatzeko eta batzarkideak gustura, eroso eta ahaldunduta sentitzeko.

Leku baten ezaugarri espazialek ikasketa, eztabaida eta deliberazio aberats eta emankorrak ahalbidetu edo eragotzi ditzakete.

→ Lehendabizi, erabaki non gertatuko den deliberazio prozesua, eskualde edo hiriaren barruan. Kontuan izan garraio publiko bidez irisgarria izan behar dela eta batzarkide guztiei ongi datorkien toki bat izan behar dela.

→ Instalazio jakin bat hautatzeko orduan, aukeratu behar adineko tamaina duen eta batzarra antolatzeko erraz egokitu daitekeen leku bat.

→ Mahai eta eserleku aukera moldaerazak ezinbestekoak dira, gaiari eta adostutako akordioei buruzko informazioa zintzilikatzeko horma espazio nahikoarekin batera.

→ Espazioak argi natural ugari behar du, eta plenario zein talde txikiagoetan mundu guztiari aditzeko eta adituak izateko baldintza akustiko egokiak

beharko ditu.

---

→ Ahal bada, tokiak bilera handiagoetarako espazio bat izango du, deliberaziorako eta akordioetara iristeko aldameneko espazio txikiagoekin.

---

→ Gobernu eraikin tradizionaletan, normalean, ez da toki egokirik egoten talde txiki eta intimoagoetan eztabaidatzeko. Baliteke horrelako tokiak batzarra egiteko aproposenak ez izatea

---



Herritarren Batzar baten kokalekua aukeratzeko espazioari buruzko gogoeta

Deskargatu PDF (EUS)

## Nola parte hartu behar dute interes taldeek diseinu prozesuan?

Herritarren Batzar baten diseinua prozesu gardena eta inklusiboa izan behar da, proiektuaren taldearen zuzendaritzapean. Demokrazia deliberatiboaren arlo barneko zein kanpoko adituen parte hartzea beharko du.

Interes talde publikoek batzarra onartu eta konfiantzazko prozesua dela ziurtatzeko, ikuspuntu anitzak ordezkatzan dituzten interes taldeen partaidetzarako prozesu bat definitu behar da, diseinuaz arduratzeko. Prozesu hori bilera edo lan saio bat izan liteke, bertan batzarrari buruzko planak aztertu eta eztabaidatzeko, edo kontsulta egiteko deialdi ireki bat.

Interes taldeek kezkak agertzea gerta liteke erabakiak hartzeko boterea herritar arrunten esku uzteko orduan. Hori saihesteko, batzarraren prozesua ongi azaldu behar da eta interes taldeei argi utzi behar zaie ekarpenak egiteko aukera izango dutela, hasierako diseinuari buruzko lan saioaz haratago. Adibidez, hizlari adituen zerrenda osatzeko iradokizunak egiten lagundu dezakete interes taldeek.

## Nola aukeratu tresna digital egokienak?

Tresna digitalak zenbait modutan izan daitezke baliagarriak herritarren batzarrentzat:

→ **Ikasketa errazteko:** batzarkideek gaiari buruzko bideo eta idatzizko materialetarako sarbidea izan dezaten, batzarra hasi aurretik eta bileren artean.

---

→ **Harremanak errazteko:** batzarkideei haien arteko interakzioak, komunikazioak eta harremanak ezartzen laguntzeko, bileren artean eta batzarra amaitu ondoren.

---

→ **Bideratze lanetan laguntzeko:** batzarrean, talde handien zein txikien eztabaidak transkribatzeko eta laburbiltzeko erabil daitezke, bai eta gomendioak idazteko eta amaierako gomendioen inguruko bozketa egiteko ere.

---

→ **Emaitzen jarraipena egiteko:** batzarkideei beren lanaren inpaktuaren berri emateko.

---

→ **Gizarte osoaren parte hartzea lortzeko:** batzarraren aurrerapausoak eta emaitzak ezagutzera emanda eta batzarrari informazio lagungarria emango dioten bestelako partaidetza prozesuak antolatuta.

---

Batzarkideen ikasketa eta komunikazio prozesuetarako tresna digitalak erabiltzea erabakiz gero, baliteke laguntza, harrera, Internetarako sarbidea eta ordenagailuak edo tabletak eskaini behar izatea horrelakorik ez duten batzarkideei.

## Nola ziurtatu batzarra ahal bezain inklusiboa dela?

Komunitateko kide guztiek batzarrean parte hartzeko aukera berak dituztela bermatzea oso garrantzitsua da.

Informazio gehiago:

### 1. Irisgarritasuna

Desgaitasuna duen edozein pertsona batzarraren bilkura tokira erraz eta bere kabuz iristeko gai izan beharko da, eta inolako mugarik gabe parte hartzeko gai ere. Batzarraren bileretan, ekipamendu egokiak jarriko dira batzarkideen eskura, hala nola entzumen urritua dutenentzako entzumenari laguntzeko sistemak, zeinu hizkuntza interpreteak edo informazio gehigarria pantailan eta ikusmen urritua dutenentzako idatzizko testuen ahozko narrazioa, besteak beste.

## 2. Konpentsazioa

Jardunbide egokien printzipioetan nabarmendu den moduan, herritarrek ordainsaria jasoko dute beren denboragatik. Era berean, zainketa kostuak eta bidaia eta ostatu gastuak ere ordainduko dira, egokia denean.

## 3. Hizkuntza

Batzarraren testuinguruko hizkuntza aniztasunaren arabera, baliteke batzarkideen arteko komunikaziorako beharrak identifikatu eta neurriak hartu behar izatea. Horien artean dira zuzeneko interpretazioa edo prozesuan lagunduko dien soldatapeko hizkuntza laguntzaile bat izendatzea edo kontratatzea.

### Kontratazioak nola egin?

Mandatura proposatzen duen erakunde publikoak, seguruenik, kontratazio prozesu bat antolatu beharko du Herritarren Batzar bat egiteko behar adinako ezagutza eta esperientzia dituen antolatzaile bat kontratatzeko. DemNext-ek eredu zko kontratazio dokumentu bat sortu du, European izandako esperientziak oinarri hartuta. MASS LBP-k, bere aldetik, Ipar Amerikarako egokiagoa izan litekeen gida bat dauka.





Lan taldea kontratatzeko eskaintza eskariak egiteko txantiloia

Deskargatu DOCX (EUS)



MASS LBP Herritarren batzar baten kontratazioak egiteko erreferentziako gida

Deskargatu kanpoko PDF fitxategia (Ingelesez)

## Nola lortu gizartearen inplikazioa batzarkideen talde txikitik haratago?

Publiko zabalago baten partaidetza lortu dezaketen bestelako jarduerak kontuan hartzea baliagarria izan liteke, esaterako, deialdi irekiak, elkarrizketak edo inkestak, batzarraren aurretik, komunitateak gaiaren deliberazioak bere gain izan dezakeen inpaktua hobe ulertzeko. Helburu bikoitza izaten du horrek: alde batetik, batzarraren lana sozializatzea, eta, bestetik, deliberaziorako oinarrizko informazioa batzarkideen eskura jartzea.

Gizartea, oro har, jakinaren gainean mantentzeko beste modu bat izan daiteke jendeak batzarrari eta jorratzen ari diren gaiari buruz dituen galderak biltzea. Batzarkideek jendaurrean hedatuko diren bideo laburren bidez erantzun ditzakete galdera horiek.

## Nola ziurtatu komunikazio estrategia egokia dela gizarteari eta ordezkari politikoei batzarraren berri emateko?

Komunikazio estrategia espezifikoa bat eta langileen dedikazio orduak aurrekontuan islatu eta hasiera-hasieratik prestatu behar dira, gizarteari Herritarren Batzarraren berri emateko, batzarraren aurrerapausoak ezagutzera emateko, frogak eta ikasketa materialak webgune espezifikoko batean partekatzeko –hartara eztabaida publikorako informazioa eskainita–, eta Herritarren Batzarra jorratzen ari den gaiari buruzko kontzientzia areagotzeko ere.

## Hona hemen mezua zabaltzeko zenbait aukera baliagarri:

- Prentsaurrekoak antolatzea
- Batzarraren saioen zuzeneko streaming emankizuna
- Kazetariei batzarkideak elkarrizketatzeko gonbidapena luzatzea
- Prentsa oharrak argitaratzea
- Gizarte sareetako eta kaleko poster kanpainak egitea



Participo - Herritarren batzarren inguruko komunikazioa

[Ireki kanpoko esteka \(Ingelesez\)](#)

## Nola bermatu kalitate handiko erraztaile lan neutralak?

Batzarraren legitimitatea eta arrakasta ziurtatzeko irizpiderik garrantzitsuenetako bat da hau. Bideratze lanak prestakuntza, ezagutza espezializatuak eta esperientzia eskatzen dituzte. Erraztaile taldeak plan argi eta xehatua prestatu behar du, horren barne direla: batzarkideek elkar ezagutzeko jarraituko duten prozesua, gaiari buruz informazioa jasotzeko prozesua, deliberazioa, oinarri komunak aurkitzea, gomendioak garatzea eta adostasun zabala lortzea. Talde txikietako eta osoko bilkuretako lana uztartu beharko ditu.



Mosaic Lab: deliberazioa bideratzea - gida praktikoa

[Ireki kanpoko esteka \(Ingelesez\)](#)



Nazio Batuen Demokrazia Funtza: hauteskondeetatik haratago doan demokraziaren eskuliburua

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



5 eguneko Herritarren Batzarra errazteko plangintza

Deskargatu XLSX (EUS)



Sunbury herritarren batzarrerako bideratze planaren adibidea

Deskargatu PDF (Ingelesez)

## 1.5 Zozketa prozesua: zozketa eta estratifikazio bidezko hautaketa

### Nola funtzionatzen du hautaketa prozesuak?

Herritarren Batzarrak definitzen dituen ezaugarrietako bat batzarkideen zozketa bidezko hautaketa da, betiere komunitatearen isla ahalik eta gehien izatea bilatzen da. Horrek esan nahi du mundu guztiak izango duela ordezkari eta ordezkatu izateko aukera bera.


Hautaketa prozesua bi fasetan banatzen da. Lehenengoan, gonbidapen ugari (sarritan, 10.000-30.000 artean) bidaltzen zaizkio ausaz hautatutako herritarren talde bati.

Gonbidapenari baiezkoa ematen dioten guztien artean, bigarren zozketa bat egiten da.

Hala ere, bigarren fase horretan, estratifikazio izeneko prozesua erabiltzean da, hautatutako taldea tokiko pertsonen aniztasuna deskribatzen duela bermatzeko, generoari, adinari, geografiari eta egoera sozioekonomikoari dagokienez.

Ingelesez, “sortition” deitzen zaio zozketa horri. Zenbaitetan, zozketa demokratiko edo zozketa zibiko izena ere hartzen du.


# 1. fasea



Gonbidapenak bidaltzen zaizkio ausaz aukeratutako herritarren talde bati (2.000-30.000), postaz, telefonoz edo posta elektronikoz.

Hartzaileek zozketan parte hartzea erabaki dezakete.

# 2. fasea



Boluntarioen arteko bigarren hautaketa, ezaugarri hauen arabera estratifikatua: generoa, adina, bizilekua, ezaugarri sozioekonomikoak, etab.

Hautatutako taldea: komunitatearen (hiria, estatua, herrialdea, etab.) adierazgarria.



## FIDE: zozketa demokratikoa antolatzea

Ireki kanpoko esteka (Europako herritarrentzat diseinatua)  
(Ingelesez)



## MASS LBP: zozketa zibiko bat antolatzeko gida


Ireki kanpoko esteka (Ipar Amerikarrei zuzendua) (Ingelesez)

## Nor arduratuko da zozketa egiteaz?

Sarritan, antolatzaileak egiten du batzarkideak aukeratzeko zozketa, betiere proiektu taldearen ikuskaritzapean. Antolatzaileak esperientzia izan beharko du zozketen antolaketan, hari baitagokio prozesu hau gauzatzea.

# Zein irizpide erabiliko dira taldea estratifikatzeko?

Oro har, generoa, adina, bizilekua eta aniztasun sozioekonomikoa islatzen duen beste aldagai bat (esaterako, ikasketa maila edo enplegu mota) erabiltzen dira talde adierazgarri bat lortzeko. Zenbaitetan, irizpide gehigarriak ere erabiltzen dira, hala nola hizkuntza edo mandatuaren gaiarekiko jarrera, amaierako taldean ikuspuntu guztiak ordezkaturata daudela ziurtatzeko. Era berean, politikari hautetsiak kanpo uzteko irizpideak ezarri behar dira ere, gonbidapena jasoko balute. Dena den, ez dira irizpide gehiegi definitu behar, bestela, zaila izango da horiek guztiak islatzen dituen talde bat osatzea.



## Ordezkaritza txikiegia dutenen lagina handiagoa izan behar da?

Oro har, ordezkari txikiegia duten taldeek, esaterako, maila sozioekonomiko baxua dutenek, gazteek, landa eremuetan bizi direnek, eta etnia, arraza eta abarregatik desabantailak sufritzen dituztenek, batzarrarekin bat egiteko gonbidapena onartzeko joera txikiagoa izaten dute.

Batek pentsa dezake, arazo hau konpontzeko egin behar dena gonbidapenak helarazteko zozketa prozesua saihestea dela. Aldiz, horrek kanporatze efektu problematikoak sortuko lituzke eta, ondorioz, mundu guztiak batzarkide izateko gonbidapena jasotzeko aukera bera izatearen printzipioa urratuko litzateke. Batzarkide guztiek prozesu berari jarraituta iritsi direla sentitzea garrantzitsua da, eta komunitate baten kide direla ere.

Taldeko zenbait kidek zuzendutako gonbidapenak jasoko balituzte, zozketa prozesua saihestuta, gerta liteke batzarkide horiek sentitzea bertan direla bakarrik talde edo interes jakin baten ordezkari moduan, eta ez zozketa bidez hautatu den komunitateko kide moduan. Gu guztion identitateek hainbat alderdi dituzte, eta batzarrekin sortzen diren inguruneek aukera ematen diete herritarrei diren horren alderdi ugariak agertzeko, eta ez bakarrik beren identitateen alderdi bat edo bi.

Nola gainditu orduan zenbait talde demografikok duten hasierako gonbidapena onartzeko joera txikiago hori? Zenbait aukera ditugu:

→ Talde hauetako kideak zein eremutan bizi diren ezagutzen badugu, gonbidapen gehiago bidal daitezke eremu horietako etxeetara, erantzun tasa gainerako taldeen parekoa dela ziurtatzeko eta, ondorioz, taldeko amaierako osaeran ordezkari-tza egokia dutela bermatzeko.

---

→ Batzarrean parte hartzeari buruzko aukera ezagutzera ematea, komunitateko, gobernuko eta gobernuz kanpoko erakundeek egindako partaidetza kanpaina zuzenduen bitartez.

---

→ Kolektibo zaurgarriekin lan egiten duten gizarte zibileko elkarteekin edo komunitateko taldeekin lankidetzan aritzea, komunitate horietako kideei gonbidapen gehiago helarazteko, zozketa prozesuaren lehenengo fasean. Horrek esan nahi du, hasieran, gehiegizko laginketa bat egingo dela, baina zozketa prozesuaren bigarren fasea erabat ausazko moduan egingo da eta, ondorioz, amaierako taldea komunitate osoaren adierazgarri izango da.

---

→ Toki mailan, atez ate joatea, gonbidapena jaso baina erantzun ez duten pertsonen kasuan, eta parte hartzeko zer behar duten galdetzea. Teknika hau eraginkorra dela egiaztatuta da, baina denbora eta baliabide asko behar ditu.

---



**FIDE: ordezkari-tza txiki-egia dutenak barne hartzea**  
Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



## Atez ate partaidetza bilatzea

Ireki kanpoko esteka (artikulua alemanez, itzulpen automatikoa erabilgarri)

### Zein data erregistro erabili behar dira?

Lehenengo gonbidapen erronda bidaltzeko, zenbait datu base erabiliko dira, tokian eskuragarri direnak. Orokorrean, erregistro hauek izaten dira biztanleria nazionalaren erregistroa, bozkatzaileen zerrendak, posta erregistroak, udal erroldak eta abar. Inolako datu baserik erabili ezingo balitz, ausazko telefono deiak edo etxez etxe joatea erabaki daiteke. Helburua da ahalik eta zerrenda osoena erabiltzea (zenbaitetan, zerrenden konbinazioa da egokiena), ahalik eta inklusiboena izan dadin. Sarritan, bozkatzaileen zerrendak, beren horretan, ez dira baliabide egokia izaten, arrazoi horrengatik, alegia, informazioa faltan izan dezaketelako.

Gogoratu datu pertsonalen babesari buruzko araudi aplikagarri guztiak errespetatu behar direla, hala nola GRPD erregelamendua.

Prozesua Euskal Autonomia Erkidego edo Aldundi mailan egiten bada, erakundeek ez dituzte herritarren datu demografikoak, hortaz, eskutitzak ausaz bidaliko dira hainbat helbideetara. Helbideak Correos-ekin harremanetan jarrita lortu ditzake erakundeak. Kasu honetan, irizpide geografikoa hartu daiteke kontuan eta eskualde bakoitzean bizi diren biztanle kopurua kontuan hartuta, horietako bakoitzera bidali beharreko eskutitz kopurua zehaztuko da.

Prozesua udal mailan egiten bada, gonbidapenak bidaltzeko eta ondorengo zozketa zibikoa burutzeko erroldako datuak erabiliko dira. Datu horiek eskuratzeko, baimena eskatu eta bideragarritasun juridikoaren txostena osatu behar da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak honako dokumentu honetan zehaztu zuen datu pertsonalen babesari buruzko informazioa (hizkuntza formala erabiliz).



## DBLO LOPD Izen emate Formularioan

Deskargatu DOCX

Tolosako Udalak hizkera formala egokitu zuen, eta Tolosako Herritar Batzarreko kideei honako dokumentu hau sinatzeko eskatu zien, beren irudi eta edukiak komunikazio helburuetarako erabili ahal izateko onartu edo bazter zezaten.



## Tolosako baimen formularioa

Deskargatu PDF (EUS)



## Tolosako baimen formularioa

Deskargatu PDF (ES)

## Nolako izango da gonbidapen gutuna?

Gonbidapen gutuna behar bezala prestatzea oso garrantzitsua da erantzun tasa ahalik eta handiena ziurtatzeko.

Aginpide handiena duen pertsonak bidali eta sinatu behar ditu gonbidapenak. Presidentea, ministroa, alkatea, zuzendari nagusia edo antzekoak izan daitezke.

Hartzaileak batzarraren helburua ulertzeko eta prozesu osoarekin konpromisoa hartzeko moduan dagoen erabakitzeke adina informazio eskaini beharko du gutunak.

## Informazio hauek izango ditu barne:

→ Batzarrak jorratuko dituen gaia eta galdera



- Amaierako gomendioak nork jasoko dituen eta zer gertatuko den gerora
- Batzarkide bihurtzeko bigarren zozketan parte hartzeko gonbidapena
- Hautaketa prozesuaren azalpena eta zozketaren hurrengo fasean parte hartzeko argibideak
- Batzarraren funtzionamendua
- Batzarkideak batzarrera bertaratu beharko diren data guztiak
- Ordainsaria (letra lodiz, testuan argi ikusi dadin)
- Maiz egiten diren galderen orria

Gutun azalaren diseinua ere garrantzitsua da: itxura erakargarri eta hurbilekoa bilatuko da eta, aldi berean, ofiziala ere bai, jendeak ulertu dezan garrantzizkoa dela eta ireki behar dela. Gutun azalean erregistroa egiteko epea adieraztea lagungarri izan daiteke jendearen arreta erakartzeko. Testuingurua ere kontuan hartu behar da. Zenbait herrialdetan, komenigarria da gutun azalak gobernuaren komunikazioen itxura bera izatea. Beste batzuetan, aldiz, kontrakoa gertatzen da eta itxura dibertigarri eta erakargarria lehenetsi behar da, ofizialtasunaren aurretik.

Hemen deskarga ditzakezu Gipuzkoako eta Tolosako Herritarren Batzarretan bidali ziren gutunak.



Tolosako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (ES)



Tolosako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (EUS)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (EUS)




## Gipuzkoako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (ES)



Poznan Herritarren Batzarrerako gonbidapen gutun azalak (2021)



Hirigintza Berrikusteko Herritarren Batzarrerako gonbidapen gutun azalak (2015)



MASS LBP gonbidapen gutuna eta maiz egiten diren galderen orria

Deskargatu PDF (Ingelesez)

## Zer sartu behar da ohiko galderen orrian?

Gutuna ohiko galderen orri batez lagunduta bidaliko da, prozesuari buruzko xehetasunak argitzeko. Batzarkideei harrera bero eta eroso egiteko aukera bat da. Batzarraren saioen inguruko informazio logistikoaz eta batzarraren funtzionamenduari buruzko argibideez gain, alderdi praktikoak aipatu daitezke (esaterako, nola jantzi behar duten, jasoko duten laguntza, etab.), eta bat egiteko kualifikazio berezirik behar ez dela azpimarratu daiteke, hau da, mundu guztia ongi etorria dela.

Hemen deskarga ditzakezu Gipuzkoako eta Tolosako Herritarren Batzarretan bidali ziren ohizko galderen dokumentuak.



Tolosako Herritarren Batzarra – FAQ

Deskargatu PDF (EUS)



Tolosako Herritarren Batzarra – FAQ

Deskargatu PDF (ES)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra –FAQ

Deskargatu PDF

## Nora zuzendu behar dituzte herritarrek zalantzak batzarraren aurretik?

Batzarkide potentzialei zuzendutako telefono zenbaki bat jartzea proposa izan daiteke, sortzen zaizkien galdera guztiak egiteko. Era berean, batzarra

abian den bitartean, batzarkideek horra deitu ahalko dute ere, agertzen diren arazoetarako laguntza eske. Normalean, antolatzailea arduratzen da horretaz.

## Nola egin zozketaren bigarren fasea?

Lehenengo gonbidapenari baiezkoa eman duten pertsonen zerrenda osatu dugunean, badira zozketa algoritmoak baliatzen dituzten zenbait plataforma digital fidagarri komunitatearen adierazgarria den amaierako taldea hautatzeko. Kode irekiko doako tresna hauetako bat erabiltzea gomendatzen dugu:

- [Panelot](#) ausazko hautaketa algoritmoa
- [newDemocracy](#) [ausazko hautaketa estratifikaturako tresna](#)
- [Sortition Foundation](#) fundazioaren StratifySelect algoritmoa

## 1.6 Ikasketa eta informazioa prestatzea

Batzarkideen beren esperientziak eta ikuspuntu propioak ekarriko dituzte prozesura, baina batzarrak jorratuko duen gaiari buruz ikasi beharko dute, informazio oinarri zehatz, zabal, esanguratsu, argi eta irisgarri bati esker. Ezinbestekoa da hori deliberazio eraginkorrerako, eta prozesu osoaren legitimitatea bermatzeko ere.

**Edukien taldea** arduratuko da oinarrizko informazioa prestatzeaz, zehazki: batzarkideekin hitz egingo duten adituen, arituen eta interes taldeen zerrenda bat sortuko dute eta informazio kit bat prestatuko dute.

Xehetasun gehiago irakurtzeko:

### 1. Adituak, arituak eta interes taldeak

**Askotariko ikuspuntuak islatzen duten adituen, arituen eta interes taldeen zerrenda bat prestatzea.** Hori garrantzitsua da prozesuarekiko konfiantza sortzen duelako eta inor kanpo geratu ez dadila bermatzen duelako.

**Gaiaren alderdi guztiak zehaztea:** desadostasun edo eztabaidarako alor nagusietatik hasi, eta ikuspuntu aditu eta bizitako esperientzietara, guztiak kontuan hartzen direla ziurtatzeko.

**Aditu eta interes taldeen aniztasuna kontuan hartzea,** generoari, talde minoritarioei eta bestelako irizpideei dagokienez.

**Adituak eta interes taldeak batzarkideen aurreko aurkezpenak egitera gonbidatzea,** edo hitzaldia bideoan grabatzera. Guztiek denbora bera izan beharko dute.

## 2. Informazio kita

Informazio kitak barne izango ditu: **auziaren definizioa, galdera, batzarkideek eman beharreko erantzunak, testuingurua, uneko planteamendua eta egindako ahaleginak.**

Testu **argi eta irisgarria** izango da, eta **hizkera ulerterrazean eta jargoirik gabe idatziko da.**

Erabakia hartzeko behar diren **aurrekarien txosten** guztiak barne izango ditu.

**50-200 orrialde** izango ditu (gaiaren konplexutasunaren arabera), auzia ahalik eta hoberen azaltzeko.

## 3. Aditu gehigarriak eskatzea

**Batzarkideek batzarra garatu bitartean eskatzen dituzten aditu eta aritu gehigarrien aurkezpenetarako** denbora ere gorde beharko da, ikuspunturen batek ordezkaritza txikiegia izan duela uste badute.

Batzarkideek nolabaiteko eragina izan behar dute prozesuan, eta beren aditu propioei deitzeko eta informazio iturriak iradokitzeke ahalmena eman behar zaie.



NewDemocracy informazio paketearen adibidea

Ireki kanpoko PDF fitxategia (Ingelesez)

Hemen deskarga ditzakezu Gipuzkoako eta Tolosako Herritarren Batzarretan bidali ziren abiapuntuko informazio-txostenak.



Tolosako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (ES)



Tolosako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (EUS)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (EUS)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (ES)

## Ikasteko modu desberdinak


Ikasteko eta informazioa prozesatzeko hainbat modu daude. Azken ikerketen arabera, jendeak hobe ikasten du edo informazioa hobe gogoratzen du harekiko duten interakzio fisikoaren arabera. Horren adibideak dira naturan

ibiltzen ari diren bitartean gertatzen diren batzarkideen deliberazioak edo ideiak besteen aurrean bisualki adieraztea.

**Aditu eta interes taldeen zerrenda eta informazio kita abiapuntua** izango dira batzarkideen ikasmaterialak eta frogak prestatzeko. Beste elementu batzuk ere sartu daitezke, hala nola bertatik bertarako bisitak, jokoak eta ikasketa interaktiborako bestelako baliabideak.

Gogoratu ezagutza zientifikoak edo esperientziazko ezagutzak ez diren beste batzuk ere (adibidez, berezko ezagutzak edo ezagutza indigenak) ongi etorriak, baliagarriak eta preziatuak direla.

# 02 Batzarrean zehar



## 2.1 Batzarkideei harrera egitea

Batzarkide izateko hautatuak izan direla baieztatzen zaien momentutik, batzarra eta ondorengo jarraipena amaitu arte, batzarkideei ahalik eta esperientzia onena eskaini behar diegu eta ongietorriak direla sentiarazi behar ditugu.



Nola egin harrera batzarkideei?



→ Hautaketa behin burututa, **luzatu deialdia batzarkideei etorriko direla baieztatzeko**. Eman aukera azken zalantzak argitzeko eta mantendu itzazu datozen urratsen jakinaren gainean momentu oro.

---

→ Aurrez aurre bildu aurretik, **bidali batzarkideei** jorratuko duten gaiaren inguruko **informazio gehigarria**, irakurri behar duten informazio kita, batzarraren bileretarako gaien zerrenda eta beharrezkoak diren xehetasun logistikoak.

---

→ **Gonbidatu batzarkideak plataforma digitalera sartzera**. Bertan aurkituko dute gaiari buruzko informazio gehiago, gainerako batzarkideekin harremanetan jartzeko aukera izateaz gain.

---

→ **Antolatu batzarkideek elkar ezagutzeko denbora bat**, birtualki edo aurrez aurre, batzarra hasi aurretik, taldeari ongietorria emateko. Taldea indartzeko jarduerak lagungarriak dira batzarkideen arteko kohesioa sortzeko, eta, ikerketen arabera, konplexutasuna hobe lantzen laguntzen dute ere.

---

## Zer jakin behar dute batzarkideek komunikabideekiko harremanari buruz?

Baliteke kazetariak edo presio taldeetako (lobby) kideak batzarkideengana hurbiltzea, batez ere estatu mailako batzarretan parte hartzen ari badira. Hori gertatzekotan zer egin behar duten azaldu behar zaie: batzarra abian den bitartean eztabaidatu ahal diren eta ezin diren gauzak, eta noiz jakinarazi behar zaion batzarreko proiektuaren taldeari horrelako interakzio bat.

Kazetariekin hitz egitean, batzarkideak:

→ Ez dira emaitzak aurrez partekatzen saiatuko eta ez dira batzarraren izenean mintzatuko

→ Beren esperientzia eta itzaropenei buruz arituko dira

## Nola lagundu batzarkideei ongietorriak direla sentiarazten, elkartzen direnean?

Estatu eta eskualde mailako batzarretan, batzarkideak herrialdeko edo eskualdeko toki desberdinetatik etorriko direnez, ostatua eskainiko da.

**Ostatua elkarrekin emango zaie, hotel berean**, arratsaldeko jarduera sozialetan edo atsedenaldietan ideiak partekatu eta elkarrengandik ikasteko aukera izan dezaten, hartara taldeko interakzio sozialak erraztuta.



## Zein jarduera sozial egin daitezke batzarkideen konfiantza sendotzeko?

Jarduera sozialek batzarkideek elkar ezagutzeko eta konfiantza eta errespetu sentimenduak sendotzeko balio dute. Era berean, deliberazioan eroso sentitzen eta elkarrekin modu eraginkorragoan lan egiten ere lagunduko diete. **Antolatu itzazu bazkari partekatuak eta atsedenaldi aktiboak**, non batzarkideek elkarrekin hausnartzeko, paseatzeko edo ariketa egiteko aukera izango duten.

## Nola lagundu batzarkideei behatzaileen aurrean eroso sentitzen?

Herritarren batzarren osoko bilkuretan, sarritan, ikertzaileak, behatzaileak eta kazetariak egoten dira. Hori apur bat beldurgarria izan daiteke batzarkideentzat. Ideia ona izaten da, prozesuaren hasieran, **batzarkideei**

**behatzaileak ezagutzeko aukera ematea**, eta behatzaileek zergatik dauden hor azaltzea.

## 2.2 Ikasketa eta deliberazioa erraztea

### Bideratzea

**Batzarra abian denean, herritarren deliberazioan adituak diren fahilitatzaileek batzarkideak gidatuko dituzte ikasketa, deliberazio eta gomendioak garatzeko oinarri komunak bilatzeko prozesuan.** Aldez aurretik garatu den fahilitazio planari jarraituko diote. Planari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus gida honen “Batzarra diseinatzea” atala.

#### Bideratzaileak:

- Neutralak dira batzarkideak jorratzen ari diren gaiarekiko
- Batzarkide guztiak hitz egiteko aukera bera dutela ziurtatzen dute, ikuspuntu eta esperientzia guztiak entzun daitezen
- Egindako judizio guztiak frogetan eta hausnarketa sakonean oinarritzen direla ziurtatzen dute
- Talde barruko interakzio esanguratsuak sustatzen dituzte

Tresna digital berriek, esaterako, MIT LVN Plataformak, lagungarriak izan daitezke bideratzaileentzat, talde txikietako eztabaidetan agertzen diren ildoak identifikatzeko eta bertan ez dauden pertsonen esperientziak ere partekatzeko.




Mosaic Lab: deliberazioa bideratzeko gida praktikoa  
Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



5 eguneko Herritarren Batzarra errazteko plangintza  
Deskargatu XLSX (EUS)

## Nola garatzen da batzarra?



## Ongietorria eta aurkezpena

Batzarraren hasieran, aginpide handiena duen erakunde mandatu emaileko pertsonak (presidentea, ministroa, alkatea, zuzendari nagusia edo antzekoa) **ongietorria egingo die batzarkideei**, batzarraren gomendioak aplikatzeko **konpromisoa azpimarratuko du**, eta lana eta mandatua azalduko ditu.

**Bideratzaileek** egunerako **gaien zerrenda aurkeztuko dute**, eta batzarkideek elkar ezagutzeko prestatu dituzten aurkezpen jarduerekin hasiko dira.

## Balio komunak identifikatzea


Batzarkideek **elkarrekin erabakiko dituzte irtenbideak aztertzeko eta erabakiak hartzeko baliatuko dituzten irizpide komunak**, hau da, batzarraren erabakien oinarria izango diren balioak. **Elkarrekin lan egiteko arauen zerrenda bat** ere zehaztu beharko dute. Prozesuan, aurrerago, desadostasunik sortzen bada, baliagarria izan daiteke akordio hauek gogoraraztea. Batzarkideek hartuko duten lehenengo talde erabakia izango

da hau eta, batzarrak jorratuko duen gaiarekin zuzeneko lotura ez badu ere, elkarrekin lan egiten hasteko aukera bikaina da.



Informazio hutsuneak eta lan hitzarmenen txantiloiak

Deskargatu PDF (EUS)



## Informazio-fasea

**Gaiari buruzko datuak eta informazioa ezagutzen dituztenean, batzarkideak judizio arrazoituak sortzen hasiko dira pixkanaka, eta hori ideiak sortzeko eta gomendioak garatzeko oinarria izango da.**

Batzarkideek denbora eta aukera beharko dute beraiei aurkeztu zaien informazioa ongi ulertzeko eta era kritikoan aztertzeko. Batzarkideei informazioa hobe prozesatzen laguntzeko badira hainbat teknika, hala nola, informazioa zatitzea, talde txikiagotan banatzea eta, ondoren, talde bakoitzak gainerakoei bere zatia azaltzea. Adituei galderak egitea ere beste aukera bat da. Batzarkideek esan beharko dute jaso duten informazioan hutsunerik nabaritu duten, eta hizlari gehigarriak bilatuko dira hutsune horiek betetzeko.

### Batzarkideek eman beharreko urratsak:

- Informazio kita eztabaidatzea
- Interes talde eta adituei entzutea
- Arazoa ulertu eta gainditu beharreko erronkak identifikatzea

→ Informazio hutsuneak identifikatu eta informazio eta hizlari gehigarriak eskatzea



## Deliberazioa eta adostasuna lortzea

Deliberazio fasean, batzarkideek ideiak sortuko dituzte, besteen ikuspuntuak ezagutuko dituzte, aukera potentzialen abantailak eta desabantailak aztertuko dituzte eta ondorioak aurreikusiko dituzte. Hemen azaleratuko da bizitako esperientzien aniztasuna, eta adimen kolektiboa sortuko du horrek. **Batzarkideek informazio esanguratsua eztabaidatu eta aukera desberdinak planteatuko dituzte, betiere oinarri komunak aurkitzeko eta talde erabakietara iristeko helburu esplizituarekin.**

## Jardunbide berritzaileak

Deliberaziorako baliagarriak diren trebetasunak garatzeko eta lortu dezaketen horren irudimena sustatzeko modu berritzaileek batzarraren esperientzia eta kalitatea hobetuko dituzte. Hona hemen jardunbide berritzaileen zenbait adibide:

→ Fitness entrenamendu demokratiko bat egitea

---

→ Etorkizun alternatiboen irudikatze kolektiboa garatzea

---

→ Etorkizuneko belaunaldien edo naturaren ikuspuntutik hausnartzen saiatzea (horretarako, batzarkide bakoitzak talde hauetako baten ordezkari moduan jardun dezake)

---


→ Sormenaren alorreko profesionalekin lan egitea: poetak, aktoreak, dantzariak

---

## Deliberazioa zabaltzea

Batzar guztietan izaten da eskertzekoa denbora gehigarria, baina batzarkideek uste badute prozesua beste saio edo egun batekin luzatu behar dela, nahitaez, beren lana amaitu ahal izateko, aukera hori eman behar zaie.

## 2.3 Gomendioak idaztea eta bozkatzea



### Idazketa kolektiboa

→ **Batzarkideek elkarrekin lan egin dute gomendioak idazteko.**

Gomendioak talde txikiagoetan ere aztertuko dira, hobekuntzak egiteko. Zenbait berrikusketara beharko dira amaierako bertsiora iritsi aurretik.

---

→ **Gomendio guztiak modu kolektiboan berrikusiko dira,** gera daitezkeen desadostasunak identifikatzeko eta doikuntzak egiteko.

---

→ **Gomendioen zirriborroa mandatu emailearekin eta interes taldeekin partekatzea ideia ona izan daiteke,** gomendioen argitasunari buruzko iritzia eskatzeko eta zehaztasuna behar duten puntuak planteatzeko aukera emateko. Horrela, amaierako txostenaren kalitate ona eta inpaktua izateko aukerak hobetuko dira.

---

→ Kasu gehienetan, batzarkideek beren hitzetan idazten dituzte amaierako gomendioak. Nolanahi ere, **gomendioen idazkerari buruzko azken hitza batzarkideei dagokie.**

---

## Talde erabakia hartzea

Gomendioen zerrenda osatu denean, batzarkideek gomendio bakoitza bozkatuko dute amaierako txostenean sartuko den edo ez erabakitzeko. % **75-80 inguruko onarpena behar da amaierako txostenean sartzeko.** Helburua ez da gomendioa perfektua izatea, baizik eta batzarkideak atzean duen asmoarekin ados egotea. Bozketa prozesu simple bat erabil daiteke, eskuak goratuta.


### Laguntza juridikoa

Zenbait kasutan, gomendioak legegintzako proposamen formatuan prestatzen badira, batzarkideek laguntza juridikoa jasotzen dute gomendioak hizkera teknikoan eman ahal izateko.

### Gutxiengoaren txostena

Hiru batzarkidek edo gehiagok gomendio baten aldeko iritzi sendoa badute, baina gomendioak ez badu lortzen amaierako txostenera iristea, "gutxiengoaren txosten" bat idatz dezakete, deklarazio labur baten moduan. Bertan, gomendioa azalduko dute, eta beraientzat zergatik den hain garrantzitsua ere.

## 2.4 Gomendioak entregatzea



Mandatu proposatutako erakunde publikoaren ordezkariari entregatzea



Batzarraren amaierako txostena aurrez aurre emango diete batzarkideek erakunde publikoko ordezkariari. Ordezkariek eskerrak emango dizkiete egindako lanagatik, izan ditzaketen galdera argitzaileak planteatuko dizkiete, eta hurrengo urratsen egutegia azalduko diete. Zenbait kasutan, ekitaldi hau interes taldeei edo publiko zabalagoari irekita egoten da.

## Partaidetzaren aitortza egitea

Batzuetan, mandatu emaileek ziurtagiriak edo bestelako aitortpenak ematen dizkiete batzarkideei, batzarkide izaera egiaztatzeko, eta prozesuarekiko konpromisoa eta egindako lana eskertzeko.

## Jendaurreko aurkezpena

Erakunde publikoak bere webgunean argitaratuko du amaierako txostena, horren inguruko prentsa oharra egingo du edo, ahal bada, prentsaurreko bat antolatuko du.



**MASS LBP txostenen adibideak**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

# 03 Batzarraren ondoren



## 3.1 Jarraipena

### Erantzun formala

Erakunde publikoak erantzun publiko formala argitaratuko du batzarraren gomendioei erantzunez. Bertan adieraziko da zein gomendio aplikatuko diren eta zeintzuk ez, erabaki bakoitzaren zergatien azalpenarekin eta xehetasun gehigarriekin.

### Aldian behingo jarraipena

Onartutako gomendioen ezarpen-maila aldia behingo aurrerapen txosten publikoen bitartez monitorizatu behar da. Lehenengo txostena batzarra amaitu eta hiru hilabeteren buruan egingo da eta, hortik aurrera, sei hilabetez behin.

### Jarraipen moduak

Zenbait aukera daude jarraipen prozesuan lagundu eta hura indartzeko:

→ **Jarraipen batzorde bat** osatzea, ausaz hautatutako batzarkideekin, gomendioen ezarpena monitorizatzeko mandatuarekin.

---

→ Gomendioen ezarpenaren jarraipena egitea **plataforma digital espezifiko** baten bidez edo legezko proposamenen datu base batekin.

---

→ **Sozietate zibileko elkarteak tartean sartzea**, erakunde publikoaren erantzunaren ebaluazioan laguntzeko.

---

## Ebaluazio txostena

Gomendioen jarraipena egiteaz gain, batzarraren ebaluazio txostena argitaratu eta jendaurrean agertu beharko da.

## Inpaktu zabala

Gomendioen ezarpenaren zuzeneko emaitzaz haratago, Herritarren Batzarrek bestelako inpaktuak ere izan ditzakete, hala nola diskurtso publikoan eragitea, publiko zabalari gai politiko hori ezagutzera ematea eta ulertaraztea, Herritarren Batzarren aldeko sostengua sortzea, etorkizunerako ikuspuntu alternatiboak planteatzea, eta elkarrekin lan egiteko modu berriak proposatzea.

Hona hemen inpaktu zabal horren adibideen inguruko azterlan batzuk: herritarren batzarrean parte hartu zuten eta haren berri izan zuten herritarren autokonfiantza politiko areagotua (ingelesez) eta epe luzearako herritarren batzarren erabilera handiagoa agintaritze publikoen aldetik (ingelesez).

# 3.2 Batzarkideen ondorengo zainketa

## Nola zaindu batzarkideak batzarraren ondoren?

Batzarkide gehienentzat, erabaki publikoetan eragiteko talde anitz batekin elkartzearena, bizitzan behin gertatzen den esperientzia da. Batzarkideek

euren esperientziak mahai-gainean jartzeko, hausnartzeko eta pentsamendu kritikorako gaitasun handiagoa sentitzen dute, erabaki publikoen inguruko ezaguera eta interes handiagoekin batera. Batzarra amaitzean, elkarrekiko kontaktua mantentzea eta inplikaturatua jarraitzea sustatu behar dira, hala nahi badute behintzat.

Klikatu beheko laukietan informazio gehiago lortzeko:

## 1. Informatuta egotea

Gutxienez, **beren gomendioen eraginaren berri** eman beharko zaie batzarkideei, hurrengo urratsetan parte hartzeko gonbidapena luzatzeaz gain.

Horretarako, urtebeteren buruan, batzarkideak berriz ere elkartu daitezke, gomendioen ondorioz gauzatu diren ekintzak aztertzeko.

## 2. Harremana mantentzea

Proiektuaren taldeak **komunikazio kanalak ezarriko dituzte**, batzarkideek kontaktua mantendu eta partekatzeko aukera izan dezaten.

Zenbait antolatzailek Herritarren Batzarretako kide ohien sareak sortu dituzte, komunitatea modu erregularrean elkartzeko.

## 3. Inplikaturatua jarraitzea

Beren komunitatearen edo publiko orokorraren aurrean bizitako esperientziari eta gomendioei buruz hitz egin nahi duten batzarkideei laguntza eman behar diegu.

Etorkizuneko batzarretan boluntario edo bideratzaile jarduteko gonbidapena ere luzatu diezaiekegu.



Argazkiaren iturria: MASS LBP

## 3.3 Hurrengo urratsak eta instituzionalizazioa

### Hausnarketa saio bat antolatzea

Batzarra amaitu ondoren, momentu ona izango da batzarraren mandatua abiarazi eta hura garatu zuten pertsonak elkartzeko, beste interes talde batzuekin batera. Bilera horren helburua izango da esperientzia honek aldaketa demokratiko handiago baterako eskain dezakeena aztertzea, ausaz hautatutako herritarren deliberazio instituzio iraunkorrak ezartzeko bidean.

Zein zentzutan izan da lagungarri Herritarren Batzarra antolatzearen prozesua? Nola zabaldu daitezke onura horiek? Zein gai politikotarako? Nola jarraitu dezakete aurrera antolatzaileek esperientzia eta ikasketa hauek oinarri hartuta? Nola atera etekina sortu diren bultzada, sentsibilizazio eta gaitasunari?

**Zeintzuk dira herritarren deliberazioa txertatzearen onurak?**

ELGAK egin duen Herritarren Batzar iraunkorren adibideen analisiaren arabera, herritarren deliberazioa gobernantza demokratikoaren ohiko parte bihurtzeak onura handiak dakartza, besteak beste:

→ **Erabaki publikoen erantzuleei gai konplexuen inguruko erabaki hobeak hartzen laguntzea**, eta baita herritarren aldian behingo ekarpena behar duten eta epe luzerako inpaktua duten erabaki gehiago hartzen laguntzea ere (esaterako, klima aldaketa, biodibertsitatearen galera, teknologia berriak, hirigintza, azpiegiturretako inbertsioa eta bestelako gai konplexuei buruzko erabakiak).

---

→ **Konfiantza publikoa areagotzea**. Konfiantza publikoak hamarkadak daramatza beheranzko joeran. Herritarren batzar puntual batek gauzak alda ditzake, baina deliberazio publikoaren etengabeko jarduna da herritarren eta erantzule politikoaren arteko elkarrekiko konfiantza sortzen duena.

---

→ **Herritarren Batzarrak erraztu eta merkatzea**. Aldi bakoitzean hutsetik hasi behar ez bada, kostuak eta baliabideak aurreztuko dira.

---

→ **Gizartearen borondatea eta egokitasun demokratikoa areagotzea**. Deliberazio publikoa eta ausazko hautaketa demokrazian txertatzean, ordezkartzaren pribilegioa herritarren talde askoz ere handiago bati zabaltzea lortzen da. Era berean, partaidetzaren onura demokratikoak ere esponenzialki biderkatzen dira.

---

→ **Hurrengo paradigma demokratikoaren sorreran laguntzea**. Gobernantza erakunde berri hauek duintasuna eskaintzen diete herritarrei eta ahaldundu egiten ditu, partaidetzaren bitartez, ordezkartzaren botere publikoa ausazko zozketa bidez banatuta, eta jakituria kolektiboa bideratuta.

---



ELGA txostena: “Deliberazio demokrazia instituzionalizatzeko zortzi modu”

## Aldaketa sistemikoa diseinatzea

Mundu osoan, askotariko Herritarren Batzar iraunkorrak jarri dira martxan. Batzar puntual bat diseinatzean gertatzen den modu berean, batzar iraunkor bat diseinatzeko lehen urratsa aurre egin beharreko erronka zehaztea da. Non izan liteke lagungarri herritarren partaidetza iraunkor eta ahaldundua? Aldi baterako batzarretan lan egitean, aukeraren bat identifikatu al dugu?

Herritarren Batzar iraunkor bat diseinatzeko, beste alderdi batzuk ere hartu behar dira kontuan: arlo politiko edo erakunde jakin batean erabaki publikoak nola hartzen diren sakonago aztertu behar da, dauden muga juridiko eta instituzionalak ezagutu behar dira, eta denboran mantendu eta eraldatu daitekeen batzar iraunkor baterako eredu egokia diseinatu behar da.

DemocracyNext espezialista da horrelako batzar iraunkor ahaldunduen sorreran. Jarri gurekin harremanetan gehiago jakiteko. Gure planteamenduak hiru urrats ditu:

# )1

## 01. Testuingurua ulertzea

Nola hartzen dira erabakiak une honetan?

Zeintzuk dira interes talde nagusiak?

Zein muga juridiko eta instituzional daude?

Nola parte hartzen dute herritarrek orain?

Zein arazo konpondu nahi ditugu herritarren deliberazio sistemikoarekin?

## )2

### 02. Batzarra batera diseinatzea

Zeintzuk izango dira batzarraren mandatua eta eginkizunak (gaien zerrenda ezartzea, proposamenak ebaluatzea, gomendioak egitea, jarraipena)?

Nola bermatuko du batzar iraunkorrak gizartearen adierazgarritasuna?

Nola ezarriko da beste erakunde eta herritarren partaidetzarako ekimenekiko lotura?

## )3

### 03. Mantentzea eta bilakaera

Zein aldaketa egin behar dira araudian/legedian partaidetzaren oztopoak desagerrarazteko?

Zein azpiegitura eta baliabide behar dira batzarraren funtzionamendua efizienteagoa eta jasangarriagoa izan dadin?



Nola aldatu eta hobetuko da eredu sistemikoa etorkizunean?

## Azpiegitura iraunkorra

Aldi baterako batzar bat egitea etorkizuneko Herritarren Batzarrak antolatzeko gaitasuna garatzeko modu ezin hobea da; izan ere, etorkizuneko prozesuak erraztuko dituzten araudi edo legeetako hobekuntzak identifikatzen laguntzen du, eta herritarren deliberazioaren inguruko sentsibilizazioa, ulermena eta sostengua sortzen ditu. Ildo hauek guztiak oinarri gisa erabil daitezke, Herritarren Batzarrak erabaki publikoen prozesuan modu sistemikoan txertatzeko behar diren azpiegitura juridiko, kultural eta fisikoak garatzeko.

Kontuan hartu:

→ Zein araudi aldaketa behar dira erakunde publikoek herritarren deliberazioa errazago abian jartzeko eta batzarrei mandatu esanguratsua eta erabakiak hartzeko ahalmena emateko?

---

→ Zein lege, araudi edo sistema hobetu edo sortu behar dira ausazko zozketa bidezko hautaketa errazteko, batzarkideei beren denboragatik ordainsaria emateko edo batzarretan parte hartzeko lana etetea ahalbidetzeko?

---

→ Zein sistema zahar edo berri erabil daitezke batzarkideen gomendioen ezarpenaren jarraipena egiteko? Esaterako, posible al da gomendioak une honetan erabiltzen diren toki, eskualde edo estatu mailako erregistroetan inskribatu eta jarraipena bertatik egitea?

---

→ Nondik lortu daitezke herritarren deliberazioa posible egiteko behar diren aurrekontua eta gainerako baliabideak?

---

→ Nola zaindu daitezke herritarren batzarrak antolatzeari buruzko ezaguerak eta esperientziak, ondoren beste erakunde publiko batzuei helarazteko?

---

→ Herritarren batzarrak antolatzeko eta deliberazio sakona egiteko erosoak diren adina espazio fisiko ba al daude?

---

# 04

## Baliabideak



Deskargatu gida honen inprimatzeko bertsioa



Democracy Next Batzarrak biltzeko gida

Deskargatu PDF (EUS)

Deskargatu txantiloak guztiak



DemNext Batzarrak biltzeko gidaren txantiloak

Deskargatu ZIP (EUS)

Baliabide orokorrak



## ELGA Deliberazio Demokraziarako Tresna Multzoa

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



## Herritarren batzarren ELGA datu basea

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

# Batzarraren aurretik

## 1.1 Arrakastarako baldintzak



## ELGAren herritarren batzarretarako jardunbide egokien printzipioak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



## Herritarren Batzarraren aurrekontu ereduak

Deskargatu XLSX fitxategia

## 1.2 Gobernantza: taldea osatzea



## KNOCA klimaren inguruko batzarren gobernantza egiturak eta jardunbideak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



## Batzarraren gobernantza txantiloia

Deskargatu PDF (EUS)

## 1.3 Ebaluazioa prestatzea



Ordezkaritzako deliberazio prozesuak ebaluatzeko  
ELGAren gidalerroak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Antolatzaileei eta fazilitatzaileei elkarrizketa

Deskargatu DOCX (EUS)



Parte hartzaileentzat inkesta Egitasmoaren aurretik  
betetzekoa

Deskargatu DOCX (EUS)



Parte hartzaileentzat inkesta Egitasmoaren ondoren  
betetzekoa

Deskargatu DOCX (EUS)

## 1.4 Batzarra diseinatzea



Eskuduntza zehazteko KNOCA gidalerroak

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Gaia aukeratu eta idazteko egiaztapen zerrenda

Deskargatu PDF (EUS)



Herritarren Batzar txiki baterako egutegia

Deskargatu PDF (EUS)



Herritarren Batzar baten kokalekua aukeratzeko espazioari buruzko gogoeta

Deskargatu PDF (EUS)



Lan taldea kontratatzeko eskaintza eskariak egiteko txantiloia

Deskargatu DOCX (EUS)



MASS LBP Herritarren batzar baten kontratazioak egiteko erreferentziako gida

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Participo - Herritarren batzarren inguruko komunikazioa

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Mosaic Lab: deliberazioa bideratzea - gida praktikoa

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Nazio Batuen Demokrazia Funtza: hauteskundeetatik haratago doan demokraziaren eskuliburua

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



5 eguneko Herritarren Batzarra errazteko plangintza

Deskargatu XLSX (EUS)



Sunbury herritarren batzarrerako bideratze planaren adibidea

Deskargatu PDF (Ingelesez)

## 1.5 Zozketa prozesua



**FIDE: zozketa demokratikoa antolatzea**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**MASS LBP: zozketa zibiko bat antolatzeko gida**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**FIDE: ordezkaritza txikiegia dutenak barne hartzea**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**MASS LBP gonbidapen gutuna eta maiz egiten diren galderen orria**

Deskargatu PDF (Ingelesez)



**Panelot ausazko hautaketa algoritmoa**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**newDemocracy ausazko hautaketa estratifikaturako tresna**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**Sortition Foundation fundazioaren StratifySelect algoritmoa**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**Gipuzkoako Herritarren Batzarra –FAQ**

Deskargatu PDF



Tolosako Herritarren Batzarra – FAQ

Deskargatu PDF (ES)



Tolosako Herritarren Batzarra – FAQ

Deskargatu PDF (EUS)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (ES)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (EUS)



Tolosako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (EUS)



Tolosako Herritarren Batzarra – gonbidapen-gutuna

Deskargatu PDF (ES)



Tolosako baimen formularioa

Deskargatu PDF (ES)



Tolosako baimen formularioa

Deskargatu PDF (EUS)



DBLO LOPD Izen emate Formularioan

Deskargatu DOCX

## 1.6 Ikasketa eta frogak prestatzea





newDemocracy informazio paketearen adibidea

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (ES)



Gipuzkoako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (EUS)



Tolosako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (EUS)



Tolosako Herritarren Batzarra – informazio txostena

Deskargatu PDF (ES)

## Batzarrean zehar

### 2.1 Batzarkideei harrera egitea



Deliberazioa gauzatzea: deliberazioaren arrazoia  
ahalbidetzea

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

### 2.2 Ikasketa eta deliberazioa bideratzea



**Mosaic Lab: deliberazioa bideratzea - gida praktikoa**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)



**Informazio hutsuneak eta lan hitzarmenen txantiloiak**

Deskargatu PDF (EUS)

## 2.4 Gomendioak entregatzea



**MASS LBP batzarren txostenen adibideak**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

## Batzarraren ondoren

### 3.3 Hurrengo urratsak eta instituzionalizazioa




**ELGA txostena: “Deliberazio demokrazia instituzionalizatzeko zortzi modu”**

Ireki kanpoko esteka (Ingelesez)

# 05

## Glosarioa



### ✓ Herritarren Batzarra

**Herritarren Batzar** bat ausaz hautatutako pertsonen talde bat da zein komunitate baten adierazgarria da. Ordu kopuru esanguratsua ematen dute ikasten eta lankidetzan, deliberazio gidatu baten bitartez, oinarri komunak aurkitzeko eta ordezkari politikoei, erabakiak hartzen dituztenei eta komunitateari gomendio kolektiboak egiteko.

Batzuetan, batzar hauek herritarren epimahari, panel edo kontseilu izena hartzen dute, tamainaren eta herrialdearen arabera.

### ✓ Batzarkideak

**Herritarren Batzarretako kideak** edo **batzarkideak** komunitatearen talde adierazgarri bat osatzeko eta Herritarren Batzarrean parte hartzeko zozketa bidez hautatzen diren pertsonak dira.

## ✓ Zozketa

**Batzarkideak zozketa bidez hautatzen dira, komunitatearen adierazgarri izan daitezen.** Horrek esan nahi du mundu guztiak duela ordezkari eta ordezkatu izateko aukera bera.

Nola funtzionatzen du hautaketa prozesuak?

**Bi fase** daude. Lehenengoan, gonbidapen ugari bidaltzen zaizkio (sarritan, 10.000-30.000 artean) erabat ausaz aukeratutako pertsonen talde bati.

Gonbidapenari baiezkoa ematen dioten guztien artean, **bigarren zozketa** bat egiten da. Oraingoan, **estratifikazio** izeneko prozesua erabiltzean da, amaierako taldea komunitatearen adierazgarria dela bermatzeko, generoari, adinari, geografiari eta egoera sozioekonomikoari dagokienez.

Ingelesez, “**sortition**” deitzen zaio zozketa horri.

Prozesuari buruzko xehetasun gehiago aurkituko dituzu [hemen](#).

---

## ✓ Herritarrak

Nahita erabiltzen dugu “herritarrak” terminoa, eta zentzurik zabalenean interpretatzen dugu, hau da: toki batean bizi den pertsona. Toki hori herri bat, hiri bat, eskualde bat, estatu bat edo herrialde bat izan daiteke, testuinguruaren arabera. Beraz, ez dugu terminoaren interpretazio murriztailea erabiltzen: “legezko aitorpena duen herrialde bateko biztanlea”. Gure lanean, “herritar” eta “pertsona” terminoak zentzu berean erabiltzen ditugu beti. Gure aburuz, herritartasuna jardun aktiboa da.

---

## ✓ Deliberazioa

Frogak aztertu eta ikuspuntu sorta zabala kontuan hartzea, oinarri komunak aurkitzeko helburuarekin. Ez da beste termino hauekin nahasi behar:

**Eztabaida;** izan ere, eztabaida batean, gainerakoak guk uste dugun horretaz konbentzitu nahi ditugu, “irabazteko”.

**Negoiazioa;** izan ere, negoziatioetan, parte hartzaileek gauza batzuetan amore ematen dute, beste gauza batzuk lortzearren.

**Elkarrizketa;** helburua elkar ulertzea izaten baita, eta ez erabaki bat hartzea.

**Iritzia ematea;** oro har plataforma digitaletan edo udaletako bileretan egiten dena, non pertsona bakoitzak bere iritzia ematen duen, ikastea edo besteei entzutea eskatzen ez duen testuinguru batean.

ELGA (2021), “Eight ways to institutionalise deliberative democracy”, *OECD Public Governance Policy Papers*, 12. alea, OECD Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/4fcf1da5-en>.

---

# 06

## Dokumentazio honen datuak

### Nola aipatu gida hau?

DemocracyNext (2023) “Assembling an Assembly: A how-to guide“, <https://assemblyguide.demnext.org/>.

### Aitorpenak

Gidaliburu hau, Ieva Áesnulaitytzik eta Claudia Chwaliszek idatzi zuten, Lucy Reid, James MacDonald-Nelson eta Ansel Herzik egindako ekarpenekin. Eskerrak eman nahi dizkiegu Irene Alonso Toucido (FIDE), Doreen Grove (Eskoziako Gobernua), Arantxa Mendiharat (Deliberativa), Jonathan Mosković (Bruselako Frantsez Parlamentua), Kyle Redman (newDemocracy) eta Graham Smith (Westminsterreko Unibertsitatea) beraien ekarpenengatik.

Gidaliburu hau euskarara itzuli zen eta Euskal Herriko testuingurura egokitu zen Arantzazulab-eko Naiara Goia, Ione Ardaiz eta Ane Miren-en lanarekin. Eskertzen dugu denbora, gogoia eta lan handia.

## **Webobrrriaren garapena**

Web programazioa: Village One

Ilustrazioak: Adèle Vivet

## **Lizentziari buruzko informazioa**

Lan hau ondorengo lizentziarekin argitaratu da Creative Commons Attribution-NonCommercial-ShareAlike 4.0 International License.